



**Hondakinen larrialdi guneak egoki ez erabiltzeagatik lehen isun proposamenak eginak** / 11

**Uharteko Udalak eskolak birgaitzeko eta igerilekua legedira egokitzeko lanak eginen ditu** / 9

**Erdozia txapeldun, eta Oiarbide eta Mitxelena txapeldunorde Urrezko Banakako Txapelketan** / 16

**Udane Vergarak bere lehen titulua irabazi du entrenatzaile gisa, Emakumezkoen Futbol 8 kopa** / 18-19

**Etxarri Aranazko Abesbatza Txikia hamasei hurrek osatzen dute; gehiago izan nahi dute** / 21

**SINADURAK**



ANDREA CARRILLO JUANBELTZ / 4



SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMA / 4



MIKEL MAIZA RAZKIN / 22



**"Ez dezagun ahaztu Palestina; ezin dugu ahaztu"**

Bingen Amadoz Lakuntza, kazetaria eta idazlea / 2-3

# "Garbi neukan nire betebeharra bizitutakoa idaztea zela"

**BINGEN AMADOZ LAKUNTZA KAZETARIA ETA IDAZLEA**

Duela hamar urte baino gehiago Palestinara egindako bidaia batean bizitutakoa liburu batean jaso zuen

**Eneida Carreño Mundiñano eta**

**Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA**

2011n Bingen Amadoz Lakuntzarekin harremana duen kazetaria Palestinan egon zen. SODEPAZ Gobernu Kanpoko Erakundearekin eta brigadista talde batekin egin zuen bidaia. Bi urte beranduago, 2013an, han bizitutakoa liburu batean bildu zuen: *Palestina. Harria eta olibondoa*. Kazetaritza lan bat da, ele biz aurki daiteke eta argitaratu eta hamai-ka urte pasa direnean "tamalez" berrargitaratu dute. "Beharrezkoa ikusi dugu; SODEPAZ-ek hala uste izan du, eta berarekin berriz gaude". Maiatzaren amaieran Lakuntzan aurkeztu zuen eta solasaldia egin zuen.

**Nola sortu zen zu eta Palestinarekiko lotura hori?**

SODEPAZ GKEk Palestinara bidaia solidario horietako bat antolatu zuen, eta hemendik hamar lagun joan ginen. Palestinako errealitatea ezagutu genuen, bertako jendea, eta aukera paregabea izan zen hura. Hori aurretik 2009an Libanora joan ginen eta bertan ere gertutik ezagutu nuen egoera, Libanon palestinar



Bingen Amadoz 'Palestina. Harria eta olibondoa' liburuaren aurkezpenean.

asko daudelako errefuxiatuta. Ein el Helwe errefuxiatu eremua ezagutu genuen eta ikaragarria izan zen guretako. Bagenekien zer zen, baina errealitatearekin topatzen zarenean eta ikusten duzunean benetan zer den bizitza kilometro karratu baten barruan, inguratuta eta hesiekin, oso harriagarria izan zen. 100.000 errefuxiatu zeuden Libanoko hegoaldean. Gero Palestina bera ezagutu genuen, batez ere Zisjordania. Gazan ezin izan genuen sartu. Orduan dagoeneko Gazako bideak eta atariak itxita zeuden. Zisjordania goitik behera ezagutu genuen, hori bai, eta gero Golango lurra ere ezagutu genituen. Siriakoak ziren eta Israelek okupatu zituen. Nazareten egon ginen, Zisjordaniatik kanpo gelditzen den eremu hori. Hango beste GKE palestinar batekin harremanetan egon ginen, eta horien bitartez ezagutu ahal izan genituen hainbat pertsona, jende herri... Oso aberatsa izan zen. Aldi berean deigarria; han bizitzen den egoera oso apartekoa da, desberdina, ez dakit parekorik daukan munduko beste lekuren batekin.

**Harako bidea hartu zenuenean argi zenuen zure egitekoa liburu bat idaztea izango zela?**

Ez. Aldez aurretik ez nekien. Baina hantxe geunden bitartean beraiek behin eta berriz esaten ziguten, eta nik mezu hori oso ongi jaso nuen: "Esaiezu besteei zuek ikusten duzuen". Argi dago hara joan ginenok oso gutxi

**"NIK AZENTUA GIZAKIENGAN JARTZEN DUT; HORI DA ABERASTASUN HANDIENA"**

**"ISRAELDARREN OKUPAZIOA GAUZA GUZTIETAN IKUSTEN DA; BADAHITE ZERTAN ARI DIREN"**

garela, eta beraien borondatea hori zen: Egon eta kontatu. Orduan, hor bai ikusi nuen nire betebeharra zela. Azken finean, ordurako beste libururen bat neukan kaleratuta eta nire bizitza osoan kazetari moduan ibili naiz eta lanerako asko idatzi dut. Orduan, nori tokatzen zitzaion hori egitea? Bada, niri. Garbi neukan nire betebeharra zela, eta horrela izan zen.

**Liburuan apartheid, eskubide urraketa... mila istorio kontatzen dituzu.**

Egia esan, nik batez ere azentua gizakiengan jartzen dut. Pertsonak ezagutzen dituzu, eta hori hangoa, hemengoa eta edozein tokietako aberastasun handiena da. Gu gara, pertsonak. Orduan, gizon-emakumeak ezagutu genituen; hainbat, denetarik, haurrak eta zaharrak... Okupazioa oso ikusgarria da alde guztietatik eta hainbat gauzatan ikusten delako; nola bizi behar duten horren mugatuta. Alde berean jendeak erakusten dizu bere izaera eta Palestinako jendea ez badituzu bertatik ezagutzen ez dituzu imajinatzen ere. Oro har, nire sentsazioa zen oso jende gozoa dela, ongietorria ematen dizute, eta beraiek oso gozo hitz egiten dute. Gozotasun hori nolabait galtzen da sufrimenduaren arabera. Sufrimendu maila handia denean jendeak nolabait tonua igotzen du. Normalean jendea gozoa da, baina ikusten baduzu, kasu bakar bat ikusi nuen, baina ez da bakarra izango, gizon batek kontatu ziguna bere 12 urteko semea kartzelan zegoela eta beste bat uste dut gazteagoa zela alde eginda zegoela, ezkutatuta, soldadu israeldarrak bere atzetik zebiltzalako... Haren sufrimendua hain zen handia galduta zeukala horretaz hitz egiteko gozotasuna. Zaila da gozoa izatea egoera horretan. Jende asko pasa da kartzelatik, eta, hala ere, sufritu dutela jakinda ere, berreskuratu dute gozotasun hori eta gurekin oso jende hurbila eta gozoa zen. **Okupazioa zertan ikusten da?** Gauza guztietan ikusten da. Matrikulak palestinarrek berdeak



**EGOKI**  
Ventanas PVC Leihoak

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea • Olazti

**EROSOTASUNERAKO PENTSATUAK**

Diseinu soileko lehiu berriak

Erakusketa: Olite kalea 16 • Iruñea



dira eta israeldarrak gorriak, eta bakoitzak errepede bat dauka. Palestinarrak ezin dira edozein errepedetik joan eta toki batetik bestera joateko buelta handiak eman behar dituzte eta denbora asko behar dute. Ikaragarria da. Bitartean israeldarrak zuzen joaten dira autopistak dituztelako. Palestinarrak XIX. mendean bezala bizi dira okupazioagatik. Beste gauza bat, terraza batean igotzen zarenean, esaten dizute ura arazo handia dela, eta beraiek biltegi moduko batzuk dituzte terrazetan euriaren ura jasotzeko. Baina biltegi horiek behean zulatuta daude tiroekin sionistek eraso dituztelako eta horrela ezin dute euriaren ura ere bildu. Hain beharrezkoa dutena. Orduan, biltegietan jaso beharrean ura erostera joan behar dute, eta ura okupatzaileek saltzen dute, jakina. Hainbat eta hainbat gauza daude. Askotan galdetzen diozu zure buruari nola bizi daitekeen horrelako egoera batean.

#### **Itxaropena eta erresistentzia. Bizitzaren baduzu ere sinesgaitza, ezta?**

Erresistentzia da aurrera egiteko modua. Nola bestela? Erresistentzia egiten diote egoerari, eta horri esker, nolabait, bizi dira. Benetan oso gogorra izan behar zara horrela bizitzeko. Oso egoera gogorrak izan dira munduan, baina gogorrenetarikoa Palestinakoa da. Beharbada Kongon bizitzea ez da erraza izan, baina Palestinakoa oso gogorra da. Esaterako, Hebron hirian kolonia bat egin dute hiriaren gainean, ez baduzu bertatik ikusten ez duzu sinesten; kolono gutxi bizi dira, baina gainean eta zabor guztia behera botatzen dute, eta behean palestinarrak daude. Kale komertzial guztien gainean sare batzuk daude, eta horrela zaborra sareetan gelditzen da, baina zuloak daude eta txoko batzuk dena zaborrez beteta daude. Kolonoek botatako zaborra. Gaiztakeria da, jendeari bizitza zailagoa egiteko. Ez du beste zentzurik. Nahiko lukete palestinarrak alde egitea; hori da haien helburua. Lur guztia beraientzako izatea. Horretarako egiten dute ahal duten guztia. Kolonoak oso muturrekoak dira, ideologikoki oso estremistak. Ez dira pertsona arruntak eta badakite zertan ari diren.

#### **Nolako liburua da?**

Gertuko bizipenak dira, hainbat jendekin izandako topaketak. Bilera asko izan genituen. Adibidez, emakume taldeak ezagu-



Bingen Amadoz kazetariak alboan Txuri Olo aktibista eta internazionalista zuela aurkeztu zuen Lakuntzan liburua.

tu genituen eta emakumeek esaten ziguten genero indarkeria bazegoela, horrelako arazoak edozein tokitan daudela, baina beraien arazorik handiena okupazioa zela. Oso garbi zuten, denen kontrakoak zen okupazioa. Haien lehen kezka eta arazoak okupazioa da. Emakumeen arteko sareak zeuden eta emakume zaharrak, erretirorik gabe bizi zirenak, laguntzen saiatzen ziren. Emakumeen arteko elkartasun hori bazegoen. Baina denendako kezka nagusia okupazioa da. Kartzeletan lan egiten duten elkarteekin ere egon ginen eta esaten zuten kartzeletako egoera oso gogorra zela. Hainbat haur daude preso. Sinestezina iruditzen zaigu pentsatzea 12 edo 13 urtetik aurrera daudela preso. Eta zer egin dute? Tankeei harriak bota. Harrapatzen dituztenean kartzelara sartzen dituzte, eta han egoten dira denbora luzean. Hainbat jende kartzeletan inolako epaiketarik gabe dago, zain, baina urteak. Hiltzen badira gorpu horiek ez dizkiete familiei ematen, kartzelan lurperatzen dituzte, bertan zigorra bete arte. Horrelako gauzak kontaktzen zizkiguten, benetan larria.

**Ikusten ez diren gauza asko daude.** Zisjordaniako alde batean badago produktu kimikoak egiten dituen lantegi bat eta haizeak

itsasotik barrura jotzen zuela kalkulatu zuten, baina batzuetan alderantziz egiten du, eta orduan okupatutako lurraldeetako israeldarrak kexatu ziren barrutik itsasora egiten zuenean kaltetzen ziela. Orduan, egun horietan ez du lanik egiten lantegiak. Baina beste aldera jotzen duenean palestinarrak kaltetzen dituzte, nahiko toxikoa da eta minbizi kasu asko daude. Ura arazo handia da, horregatik harresia egiten akuifero bat topatzen dutenean Israelen aldean uzten dute, palestinarrak urik gabe uzteko. Palestinarrei ur beltzak bidaltzen dizkiete. Erreka txiki batzuk ikusten dira eta ur beltzak dira. Horiek ere osasunean eragina dute. Ospitalera joateko palestinarrak beste aldera joan behar dute. Ospitaleren bat badago, baina erditzera edo gaixotasun larri batekin kontrolak pasa behar dituzte eta oso gogorak dira. Oso gaixo badago agian ez diote pasatzen uzten eta han hiltzen da. Oso gogorra da. Osasuna ere haien menpe dago.

#### **Nola bizitzen ari zara egun gertatzen ari den genozidioa?**

Batez ere ezagutu genuen jendea gogoratzen dut. Hau eta bestea nola egon diren pentsatzen dut. Jendea ezagutzen duzunean, eta guk jende asko ezagutu genuen, benetan gozoa eta majoa, nola egon diren pentsatzen duzu. Gaza

ari da jasaten, baina beste lekuetan gauzak ez dira hobeak izanen. Gero eta okerrago. Hemendik pasatu direnak diote guk ezagutu genuena baino askoz ere okerrago dela orain. Dena okerrera joan da. Oraingo egoerarekin emakume gozo nola egon den, nola biziko den, pentsatzen duzu; eta hori bezala beste hainbat. Nola jasanen du egoera Argentinatik Jerusalemara bizitzera joan zen judutar ez sionista. Gutxi dira, baina denak ez dira berdinak. Egon ginen jatorriz argentinarra zen judutar batekin eta Jerusalemeko historia guztia kontatu zigun. Oso polita izan zen topaketa hura ere. Batez ere ezagutu-tako pertsonekin gogoratzen naiz, zein minarekin eta tristurarekin biziko duten. Irudiei dagokionez...

### **"MUNDUAN DAGOEN EGOERA GOGORRENETARIKOA PALESTINA DA; OSO GOGORRA DA"**

### **"JENDE ASKOK EGITEN BADUGU ZERBAIT, ETA EGIN AHAL DA, BALIOGARRIA DA"**

Dagoeneko ezin ditut irudi horiek ikusi. Ezin dut.

#### **Zer garrantzia dauka mundu mailako elkartasunak?**

Oso garrantzitsua da. Batzuek esaten dute guk pertsonalki zer egin dezakegun, guk geuk ezin dugula ezer egin, eta gobernuek edo erakundeek egin beharko zutela zer edo zer. Erakundeek zerbait egiten dute, batzuetan, zenbait tokitan; beste batzuek ez dute ezer egiten. Baina, hala ere, guk geuk beti dugu zerbait egiteko. Ez dezala inork pentsa ezin dugula ezer egin. Gure ahalmena mugatua da. Baina bata bestearekin eta beste hori beste batekin... Jende askok egiten badugu zerbait, eta egiten ahal da, baliogarria da. Hori dena bat hartuta baliogarria da. Balio ez duena da beste alde batera begiratzen jartzea edo ukatzea. Norberak beti egin dezake zerbait. Gu toki pribilegiatu batean bizi gara, guren elkartasuna gero eta handiagoa da, eta hori ezin da ukatu. Jende asko mobilizatu da, eta jende askok erakutsi du elkartasuna Palestinarekin. Jende askok esan du ez dagoela ados genozidioarekin. Orduan, uste dut alde horretatik erraza dugula eta gertu dugula nora joan eta zer egin.

#### **Zer gertatuko da? Zer nolako etorkizuna irudikatzen duzu?**

Zaila da, ezta? Baina batzuetan jendearengan izan behar dugu esperantza. Munduan gaiztoak dauden bezala, onak ere badira. Historiak batzuetan harritzen gaitu eta sorpresaz harrapatzen gaitu gertatzen diren gauza batzuekin. Nik beti pentsatzen dut: nor pentsa zezakeen 1989 baino lehen Berlingo Harresia eroriko zela. Historiaren zelako buelta izan zen. Batek daki zer gertatuko den, baina uste dut sionismoa ari dela bere zeregin muturretara eramaten eta soka tiraka eta tiraka baldin badago batzuetan hausten da. Soka hori tiraka eta tiraka eta muturretara eramaten ari da sionismoa. Ez dakit etorkizuna zein den, baina ez dakit beraieandako ona izango den. Palestinarrendako txarra da, oso. Batez ere, ez dezagun ahaztu Palestina. Ezin dugu ahaztu. Palestina Libre ez den bitartean, gu ere ez gara aske izanen. Bertatik jaso dugun jende askoren mezua "bakea nahi dugu" izan da, eta hori da behar dutena, azken finean.



ASTEKOA

ANDREA CARRILLO JUANBELTZ

## Zorionak zure urtebetetzean

Urtebetetze egunak, bat batean, egun garrantzitsu batean bihurtu dira. Hainbestearino non egun horretan zoriontsu egotea derrigorrezkoa omen da, baita besteon "zer plan daukazu egun horretarako?" bezalako galderarentzat erantzuna edukitzea ere. Zer esanik ez, zure eguna den horretan, besteok zu garrantzitsua zarenaren islatze hori, gezurrez jantzita badago ere. Orduan, guztiek jakin behar dute data horren esanahia, baita zoriondu ere. Eta horretarako ondo bermatzen dugu besteok jakin dezaten, nahiz eta beste horiei sekula ez axola.

Gauzak horrela, egun horretan bada ere, asetzen gaituen atentzio faltsu batez hornitzen gara. Azken batean, egunerokotasunaren bakardade ala hutsuneaz zertxobait urruntzekotan, geure urteko egun bakar batean jartzen dugu pisua. Aldiz, ez al zen izango zentzuzkoagoa geure urteko egun guztietan garrantzia jartzea? Akaso geure bizitza ospatzeko egun horretaraino itxarun behar al dugu? Baita,

### EGUN HORRETAN BADA ERE, ASETZEN GAITUEN ATENTZIO FALTSU BATEZ HORNITZEN GARA

bestean erantzunarekiko, egun horretan zutaz gogoratzeak ala ez, hainbestearinoko garrantzia al dauka? Hona hemen geure erlazionatzeko modua.

Aizue, egun bakarra da, faktore eta kasualitatez

beterikoa, hainbestearinoko pisua jasotzeko. Ez zait bidezkoa iruditzen nire urtea egun horrek eutsi dezakeen balioan laburtzea. Azken batean, uste dut nik neure buruaz egunero gogoratu eta ez ahaztearekin konformatzen naizela. Baita, hain garrantzitsua ez naizen urteko beste egun horietan nire ondoan jarraitzen duten pertsonak ondoan egotearekin ere. Horiek bai direla nire urtearen benetako zorionak.

**GUTUNAK:** Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapitulu-luka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

## HARA ZER DIEN

### Iruñea-Gasteiz lotura

#### SAKANA TRENAREN ALDE PLATAFORMA

Aste batzuk atzera, Nafarroako Unibertsitate Publikoan eztabaida interesgarria eman zen AHTaren inguruan. Jardunaldi haietan AHTaren aldekoek beren diskurtso hutsal eta gezurtia bota zuten: "Nafarroa ezin daiteke Espainia eta Europarekin lotunerik gabe gelditu", "AHTak Nafarroako ekonomia eta ehun industrial bizkortuko du". Hau bezalako ohiko mezu faltsuak lardaskatu zituzten, ekonomiaren edota mugikortasunaren ikuspegitik inongo oinarrik ez dauzkatenak.

Bestaldetik, AHTan ehunka milioi xahutu beharrean beste alternatibak

planteatzen dituzten taldeak egon ziren, esaterako, Sustraiko kide bat, "Tren Publiko eta Sozialaren" proiektua defendatuz.

Interesgarriena, dena den, Madrilgo gobernuko garraio saileko estatu idazkariaren hitzak izan ziren, azken finean, hauen esku baitago AHTa eraikitzearen gaur egungo ardura eta zuzendaritza. Arduradun honen hitzak oso esanguratsuak izan ziren. Bere hitzaldi guztian AHTaren proiektuak merkeago izan daitezen diru asko balio dituzten esku hartzeak gutxietsi zituen, garrantzia kendu nahian. Hala nola, hirietako sarreretan AHTaren lurperatzeak, ibilbide guztiek ez dutela 350 km/orduko diseinua zertan izan behar

edota AHTa ez dela kasu guztietan plataforma berri batetik heldu behar. Azken hau da sakandarroi gehien interesatzen zaiguna, esan baitzuen, Iruñea eta Gasteizko lotura egiteko bestelako aukerak baloratu litezkeela, hau da, ez dela zertan plataforma berri bat egin behar.

Urteetan, AHTaren aurkariak behin eta berriz aipatu izan duguna betetzen ari da, eutsiezina dela hainbeste AHT linea egitea eraikuntza, mantenu eta esplotazio gastuak etengabeko galerak dakartzatela.

Ez dago ezer irabazirik oraingoz eta borrokan tinko jarraitu beharko dugu AHTaren mehatxua Sakanatik alden du arte.

## Telegram kanala

Sakanako informazio guztia zure eskura

guaixe


[www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

#### Maketatzailea:

Lune Trecet Obeso  
[maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)

#### GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika  
[info@gkomunikazioa.eus](mailto:info@gkomunikazioa.eus)  
619 821 436  
Ainhoa Etxeberria Pikabea  
[gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)

#### Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez  
[admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)

#### Zuzentzailea:

Felix Altzelai Iriarte

**Lege gordailua:** NA-633/1995

**Tirada:** 3.200

LAGUNTZAILEAK



**Erredakzio burua:**  
Alfredo Alvaro Igoa  
[erredakzioa@guaixe.eus](mailto:erredakzioa@guaixe.eus)

**Erredakzioa:**  
Maidier Betelu Ganboa  
[kiriolak@guaixe.eus](mailto:kiriolak@guaixe.eus)  
eta Erkuden Ruiz Barroso  
[kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

**Irratia:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
[irratia@guaixe.eus](mailto:irratia@guaixe.eus)  
948 567 074

**Publizitatea:**  
Eneida Carreño Mundiñano  
[publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)  
661 523 245


**Koordinatzailea:**  
Goizeder Anton Iturralde  
[fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)

**ARGITARATZAILEA:**  
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.  
31800 Altsasu  
948 564 275



Gobierno de Navarra  
Nafarroako Gobernua

## Europako Parlamenturako hauteskundeak Sakanan



# Hauteskundeetan EH Bildu nagusi

Sakanako udalerrri guztietan irabazi du EH Bilduk. PSOE bigarren aukera bozkatuena izan zen hamabi udalerritan, Geroa Bai bi herrietan eta PP batean. Hirugarren indar bozkatuena PP izan da zortzi udalerritan eta Geroa Bai seitan, PSOE azkenekoan

### SAKANA

Europako Hauteskundeetan 15.519 sakandarrek zuten botoa emateko aukera. Haietatik 7.685ek erabili zuten eskubide hori, hau da, %50,48ak. Europako Hauteskundeak 2019an udal eta foru hauteskundeekin bat egin zuten parte hartzea %67,28koa izan zen.

Sakanan EH Bildu nagusitu da botoen %45,19 eskuratuta. Herri guztietan izan zen lehen indarra, Irañetan boto bakarragatik izan bazen ere. Koalizio subiranistak duela bost urte baino 627 boto gutxiago eskuratu zituen igandeko hauteskundeetan.

PSOE izan da bigarren indar bozkatuena Sakanan, botoen %23,54 bereganatu zituzten. 2019an baino 173 boto gehiago eskuratu dituzte sozialistek. Pedro Sanchez gobernuan egoteak eta alderdiak PPrekin dituen tirabirak botoa PSOEra erakarri du. 2019an hirugarren indarra izatetik bigarren izatera pasa dira sozialistak.

Ibarrean hirugarren indarra PP izan zen botoen %11,43rekin. Hauteskundetara UPN aurkeztu ez zenez, ikusteko zegoen erre-gionalisten alde botoa ematen zutenek zer jarrera hartuko zuten igandeko hitzorduan. Popularrek azken deialdiarekin alderatuta 409 boto gehiago lortu dituzte Sakanan eta bosgarren indarra izatetik hirugarren izatera pasa dira.

Geroa Bai CEUS koalizioaren barruan aurkeztu zen eta sakan-darren laugarren aukera izan zen botoen %8,49 eskuratuta. Hauteskundeetan galera handia izan du koalizioak 2019ko Europako Hauteskundeetan baino 1.430 boto gutxiago eskuratu baititu. Sakandarren gogoko

**BOTOA EMATEKO  
AUKERA ZUTEN  
15.519 ETATIK 7.685 EK  
ERABILI ZUTEN  
AUKERA, %50,48 AK**

bigarren indarra izatetik bosgarrena izatera pasa da.

Ezker konfederalaren espazioan bi hautagaitza aurkeztu ziren. Sumar Podemosen aurretik gelditu zen, hurrenez hurren %2,84 eta %2,58 boto eskuratuta. Bost urtean espazio horrek 414 boto galdu ditu Sakanan, eta ibarreko laugarren aukera politikoa izatetik bosgarren eta seigarren izatera pasa da.

Sakandarren aukeren artean eskuin muturrekoak zazpigarren eta zortzigarren aukerak izan ziren. Voxek botoen %2,52 eskuratu zituen eta Bukatu da festak, berriz, %0,71. Eskuin muturrak sakandarren botoen %3,23 eskuratu zituen igandean. Bost urtean Voxek 84 boto irabazi ditu ibarrean. Horri eskuin muturreko beste hautagaitzaren botoak gehituz gero, boto hazkundera 138koa da.

### Gehiago

Europako Parlamentua laster berrikotuko da. Legebiltzarrak

eskuinera egingo du, alderdi ultraeskuindarrek izandako gorakadaren ondorioz. Esaterako, Ipar Euskal Herriari Batasun Nazionala alderdi ultraeskuindarrak 158 udalerrietatik 92tan irabaztea. Hala ere, badirudi atzera ere koalizio handia egingen dutela kontserbadoreek, sozialdemokratek eta liberalek.

Hego Euskal Herrian PSN izan da garaile. Sozialistak indarrik bozkatuena izan dira Araban, Bizkaian eta Nafarroan. Gipuzkoan, berriz, EH Bildu. Nafarroan PSOEren ondoren PP (%28), EH Bildu (%18,7), Vox (%6,6), Sumar (%3,8), Podemos (%3,2) eta Geroa Bai (%3,2) gelditu dira. 2019arekin alderatuta lehen hiru postuak berdin mantendu dira. Vox zazpigarren izatetik laugarren izatera pasa da. Ezker konfederalak eta Geroa Bai behera egin dute.



### EKAINAK 17-21

**10:00** Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta

**10:15** Prentsaren azala

**10:20** Albisteak eta kirolak

**10:30** Hizketan

**11:05** Solasaldia Karrape eta Aralar irratiarekin

**14:00** Errepikapena

### Hizketan

**Ekainak 17** Bingen Amadoz (Palestinari buruz)

**Ekainak 18** Kattalin Armendariz (Esklerosi anizkoitza elkarteko fisioa)

**Ekainak 19** Bertso saioa (Bertsoa.eus)

**Ekainak 20** Udane Vergara (Kirol Sport entrenatzailea)

**Ekainak 21** Agenda berezia



Unai Razkin eta Manu Gomez (dokumentaleko lantaldekoak), Puri Galartza eta Joxe Aldasoro (tortura pairatutakoak) eta Ainara Gorostiaga (Nafarroako Torturatuen Sarekoa).

# "Garrantzitsua da kontakizun hori barrutik egitea"

**MANU GOMEZ ETA AINARA GOROSTIAGA EGILEA ETA TORTURATUEN SAREKOA**

Dokumentalaren bidez torturari buruzko kontakizuna egin nahi izan dute, atzera ere, halakorik errepika ez dadin eskatzeko

**Alfredo Alvaro Igoa SAKANA**

Sakanan gutxienez 149 pertsonak pairatu dute tortura 1966 eta 2011 urteen artean. Hego Euskal Herriari 5.394 kasu zenbatu dituzte. *Arg(h)itzen* dokumentalaren aurkezpenean esan zuten, "gatazkak eragindako kalteak ahal den neurrian aitortu, erreparatu, eta etorkizunean horrelakorik berriz ez errepikatzeko bermeak finkatzea erronka dugun honetan, tortura itzaletik argitara ekartzea erantzukizun handiko ariketa da. Tortura posible egiten duen

sistema osoa eraitsi ahal izateko oinarria jartzen duelako". Gaineratu zuten, "dokumentala Sakanari, Euskal Herriari eta munduari egin nahi diogun ekarpen xumea da. Tortura gai konplexua da oso, hainbat ikuspegi

**"FAMILIA ETA KOADRILA GUZTIETAN SUFRIMENDU ASKO EGON DA"**

AINARA GOROSTIAGA

tatik azaldu eta kontatu daitekeena. Kontatu behar dena". Manu Gomez Genua dokumentala ekoiztu duen lan taldeko kideak eta Ainara Gorostiaga Eskubi Nafarroako Torturatuen Sareko ordezkariak azalpen gehiago eman dituzte.

**Zer da tortura?**

**Ainara.** Tortura, gauza asko dira. Tortura ez da bakarrik tortura fisikoa, kolpeak ematen dizkizutenean, poltsa jartzen dizutenean, mehatxatzen zaitzutenean, elektrodoak jartzen

dizkizutenean... Beharbada tortura fisikoari buruz entzun dugu gehien. Tortura, horretaz harago, tortura pertsona bat psikologikoki suntsitzeko erabiltzen den tresna bat da. Suntsitzea batzuetan lortzen da tortura fisikoarekin, baina baita tortura psikologikoarekin ere. Askotan torturatuek esaten dute: "ni ez naiz torturatua izan. Niri bakarrik bi kolpetxo eman dizkidate". Hor ikusten da Euskal Herriari oraindik torturatu askok ez dutela bere burua torturatu gisa aitortzen. Torturaren definizio hori esatea gaur egun ere kostatzen ari da: tortura ez da bakarrik jipoitzea, gizartean beldurra sorraraztea ere bada, familia eta koadrila guztietan sufrimendu asko egon da horren inguruan. Tortura hori guztia da.

**Zergatik torturari buruzko dokumental bat?**

**Manu.** Iruditzen zaigulako kontakizunaren garai oso garrantzitsua dela kontakizun hori barrutik egitea. Ez daitezela izan hirugarren pertsonak kontatzen dutenak, baizik eta lehenengo pertsonan. Horregatik egin dugu ahalegin berezia. Sakana eskualde berezia da, hain eskualde

**"AZKENEKO SEI HAMARKADETAN TORTURA ISILPEAN EGON DA"**

AINARA GOROSTIAGA

txikian torturatuak izan diren pertsona pila bat dugu. Eta, gainera, prest azaldu dira barrutik hitz egiteko. Uste dugu hori dela kontakizunik zuzenena, barrukoak. **Torturak ikusgarritasuna behar du?** **A.** Jakina. Azkeneko sei hamarkadetan tortura isilpean egon da, ukatua izan da eta ez da horren inguruan hitz egin. Alde batetik, instituzioek beraiek ez dutelako onartu nahi estatu batek torturatu egin duela. Eta, bestetik, torturatuok ere nolabait isilpean egon garelako hainbat arrazoiengatik: beldurratik, ezin delako benetan kontatu han barruan gertatzen zaiguna, eta kostatzen delako hori kontatzea. Bada garaia torturari ikusgarritasuna emateko. Honelako dokumentalek horretarako balioko dute.

**Zein eduki du dokumentalak?**

**M.** Hasteko, lan handia egin da. Auzolan handi baten fruitua da. Hasiara batean poliki-poliki jendearengana joan eta kontatzeko prest zeuden galdetzea izan zen. Batzuek azkar eman zuten pausoa, beste batzuek kostata eta beste batzuek ez dute eman. Guk 40 urteetako esperientzia eta hainbat egoera bizi izan ditugu eta dokumentalak hori dauka. Epe horretako testigantza zuzenak dauzka. Gainera, aditu talde handi batek kontatzen du torturak nola funtzionatzen duen psikologia eta kriminologia arlotik. Kazetari garrantzitsuek ere haien iritzia ematen dute. Dokumental honek pixka bat denetatik du, biluztu edo argira ateratzen du torturaren errealtatea.

**Zeinek egin du dokumentala?**

**M.** Auzolanean egin dugu, argi eta garbi. Talde eragile bat egon da, baina talde eragilearen atzetik ere beste erakunde batzuk egon dira. Laguntza eskatu dugun momentuan izugarritzko zaintza eta laguntza jaso dugu. Diru iturria ere auzolan gisa planteatu genuen, eskuz esku, ahoz aho eta crowdfunding bidez lortu dugu dirua. Esan bezala, auzolan bat da.

**Nola zabalduko duzue dokumentala?**

**M.** Lehenengo gauza, zabalkunde guztia eman nahi diogu. Gure helburuak garbi daude: TV3 edo ETB bezalako medioetan ematea nahiko genuke, eta saiakera egingo dugu, zuzena, zorrotza eta zintzoa. Horretaz aparte, zorionez, badakigu Nafarroako Torturatuen Sareak zabaltzeko asmo guztia

daukala. Beraien esku jarriko dugu lan hori, eta ahoz aho zabaldu dugun bezala, gure egitasmoa orain herriz herri zabaltzeko asmoa dago, bereziki, sarearen laguntzarekin.

### **Tokiko ikuspegitik egindako ikus-entzunezkoak balio dezake atzerrian tortura hizpide izateko?**

**M.** Hori da dokumentala ikusi duten pertsonen esan diguten lehenengo gauza. Batzuek esaten zuten: "baina Sakanatik..." Tokiko kontu gisa geldituko ote zen kezka azaldu zuten. Lana eginda, ezetz ikusten dute, aitzakia bat dela, errealitate sakon bat, Euskal Herriko errealitate bat bete-betean islatzen baita. Iruditzen zaigu edozein tokitan aurkezteko modukoa dela, ez da bertako historia bat.

### **Beraz, emandak antolatuko ditu sareak?**

**A.** Saiatuko gara. Torturatuen sarean kaltetunak izan diren Nafarroako ehun herrietako kontaktuak ditugu. Eta dokumentala ikustea eskatzen duten herri guztietan, han egon dadin lagunduko dugu.

### **Nafarroan bada lege bat. Haren laguntza zer egin nahiko zenukete?**

**A.** 16/2019 Foru Legea dago, eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimen errekonozimenduari eta erreparazioari buruzkoa. Torturatua edo giza eskubideen urraketak pairatu duen edonor aurkeztu daiteke. Lege horrek aitortza pertsonala eta erreparazioa ematen du. Nafarroako Gobernuak erreparazioa indennizazio gisa ulertzen du. Nafarroako Torturatuen Sarean uste dugu aitortza pertsonal horretatik aparte, lege horrek eman aitortza kolektibo bat ere eman dezakeela. Gero eta jende gehiago aurkezten baldin bagara, hor islatuko da benetan tortura ez dela kontu isolatu bat izan, baizik eta sistematikoa eta erabat planifikatua egon dena.

Horretaz aparte, uste dugu lege horrek ez dituela aitortuko guk nahiko genituzkeen kasu guztiak, baina uste dugu garrantzitsua dela kontakizun hori uztea. Legeak

**"EDOZEIN TOKITAN AURKEZTEKO MODUKOA DA, EZ DA BERTAKO HISTORIA BAT"**  
MANU GOMEZ

berak jasoa du nola Nafarroako Memoria Institutuan ere geratu daitezkeela testigantza horiek. Alde horretatik, gure ustez garrantzitsua da ahalik eta testigantza gehien bertan uztea. Bestetik, uste dugu ere behin aitortza ofizial bat eduki ondoren, ateak ireki ditzakeela ere beste estamentu batzuetan, nazioartean edo estatuan. Ez da gauza bera aitortza ofizial bat ez edukitzea edo Nafarroako Gobernuarena izatea.

### **Lekukotza hori emateko, eskaera hori egiteko, zer pauso eman behar dira?**

**A.** Nafarroako Torturatuen Saretik, eta Egiari Zor fundazioaren bidez, jendea laguntzen dugu. Guregana etortzen badira guk lehenik dokumentazio bilketa bat egiten dugu. Esaterako, tortura kasuetan batzuek ez daukate ezta testigantza bat idatzia. Jendea horregatik ez dadila kezkatu: lekukotza hartuko diegu, eskaera testua idatzi eta Nafarroako Gobernuan erregistratzen dugu. Norbaitek bere kabuz egin nahi badu, lasai asko egin dezake bere kabuz.

Behin eskaerak Nafarroako Gobernuan erregistratuta daudenean, lehenengo pausoa da tramitera onartzea eskaera hori. Eta behin onartzen denean, deitzen zaituzte Aitortza Batzordetik beraien aurrean testigantza emateko. Batzorde hori osatzen dute psikologoak, mediku forentseak, Nafarroako Memoria Institutuko zuzendaria eta Nafarroako Parlamentuak hautatzen dituen lau txostengileetako batekin.

Kontakizuna egiten duzu. Garrantzitsua da ere: galdetzen dizute zer aldaketak gertatu diren zure bizitzan tortura edo giza eskubide urraketak horiek eman aurretik eta ondoren. Eta beraiek baloratzen dute. Beraiek urtebete daukate baloratzeko biktima gisa aitortzen zaituzten edo ez. Eta aitortua izateaz aparte, ea indennizazio bat edo erreparazio bat ematen dizuten ala ez. Guk erreparazioa ulertzen dugu hori baino gehiago dela, baina Nafarroako Gobernuaren lege horrek horrela ulertzen du.

### **Eskaerak egiteko eperik badago?**

**A.** 2027ko garilean bukatuko da. 3 urte daude aurretik. Kasu asko daude. Prozedura gogorra da, mantsoa da, baina, hala ere, uste dugu garrantzitsua dela eta probestu behar dela aukera hori.

# Arbizuko eskola zaharretako lanei agur

Udalak eraikina kultur jarduerara bideratuko du etorkizunean. Kultur gunearen funtzionamendu araudiaren zirriborroa egin eta arbizuarren artean banatuko du, parte hartzearen bidez onartzeko udazkenean

### ARBIZU

Arbizuko Udalak jakinarazi duenez, eskola zaharrak hartu zituen eraikineko lanak gaur, garagarriaren 14an, ostiralarekin despedituko dituzte. Ikastetxea zena kulturarako azpiegitura bihurtzeko lanak azaro hasieran hasi ziren eta 370.000 euroko aurrekontua izan dute. Europako funtsetako dirulaguntzarekin ordaindu du lana udalak. Kisu-gileek egindako lanaren ondorioz eraikineko 299 metro karratuetan areto handi bat eta bi gela txiki egin dira. Eraikin horretan ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak, erakusketak, proiektzioak, kontzertuak



Lanak Arbizuko eskola zaharrean.

eta beste hainbat ekintza eta bilera egiteko leku izanen da

Udalak azaldu duenez, "orain, poliki poliki, barrua janztea geldituko da". Aurreratu duenez, "udazkenean funtzionamendurako araudi proposamen bat banatuko dugu etxe etxe eta batzar bat deituko dugu, proposamen horri ekarpenak edo/eta aldaketak egin eta behin betikoa erabakitzeke batzarrean". Udalak azaldu duenez, "araudi proposamena egiteko aldameneko herrietako kultur etxe eta erabilera anitzetarako azpiegituratan erabiltzen dituztenak oinarri hartuta" osatu du Arbizuko Udalak.

## Jaibusa erabiltzeko adin txikikoek txartela behar dute

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateetan eskatu behar dute gurasoek

### SAKANA

Sakanako Mankomunitateak eta Irurtzun, Etxarri Aranatz eta Altsasu aldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateen Prebentzio Zerbitzuek elkarlanean eskaintzen dute Jaibus

zerbitzua. Aurten 24. urtea du martxan dela. Herrietako festetara egiten diren joan-etorrietan trafiko istripuak prebenitzea da bere helburua. Zerbitzuaren sustatzaileek gogorarazi dute Jaibus 16 urtetik gorakoek bakarrik

erabili dezaketela. Baina adin txikikoak direnak, hau da, 16 eta 17 urte dituzten gazteek Jaibusera igotzeko txartela egin behar dute.

Txartel hori eskuratzeko gazte horien gurasoek edo adingabeen legezko tutoreek eskaera egin beharko dute dagokion Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatean. Txartela erakutsiz adin txikikoek gurasoen edo tutoreen baimenaz gaueko autobus zerbitzuan bidaiatuko dutela frogatzen dute.

## Hiru bajerak alokatuta

Unanuko Kontzejuak dituen hiru bajerak hiru urtez erabiltzeko enkantea egin zuen, eta irteerako prezioan hartu ziren. Eskolak hartu zituen eraikinean dagoen bajeragatik Unanuko Kontzejuak 370 euro jasoko ditu, meistruberein etxeko bajeragatik, berriz, 695 euro eta labaderokoagatik 420 euro. Guztira 1.485 euro. Prezioei dagokien BEZa gehitu behar zaie.





Festa giroko irudiak ditu kanpainak. UTZITAKOA

## Berdintasunezko eta eraso sexistarik gabeko festen alde

Foru Gobernuak 'Nafarroan... Gozatu, partekatu eta errespetatu' leloa duen kanpaina abiatu du

### SAKANA

Nafarroako Gobernuak festa inguruneetan afektuzko eta sexuzko harremanetan tratu ona sustatzeko eta emakumeengana eta sexu aniztasunaren kontrako indarkeria prebenitzeko kanpaina bat abiarazi du. Harekin foru administrazioak berdintasunezko eta eraso sexistarik gabeko festak sustatu nahi ditu.

Kanpaina 35 urtetik beherako biztanleei zuzenduta dago bereziki, eta hiru helburu ditu: intentsitate txikiko indarkerien identifikazioa hobetzea eta indarkeria horiek geldiarazteko beharraz kontzientziatzea, sexualitatearen ikuspegi positiboa zabaltzea harreman trebetasun osasungarriak, berdintasunezkoak eta tratu onekoak sustatuz, eta sexu praktika arriskutsuak saihesteko prebentzio neurrien erabilera sustatzea.

Kanpainaren irudietan, gazteak erakusten dira, taldean edo bikoteka, jai giroan gozatzen, festa giroan eta jarrera osasungarrian. Goiburu nagusiaz aparte, diseinatutako kartelek errespetuzko harremanak aldarrikatzera bideratutako hainbat baieztapen biltzen dituzte: *Nire posturarik gustokoena? Presiorik ez; Zure laztanek zoratu egiten nautte, zure errespetuak, are gehiago eta, azkenik, Gehien erakartzen nauena? Ezer ziurtzat ez jotzea.*

"Nahiago nuke horrelako kanpainak egitea beharrezkoa ez balitz, baina gaur egun ere emakumeen kontrako indarkeriaren zifrek hala dela erakusten digute. Guretako, herritar guztientzako izan behar duen bezala, berdintasuna harreman pertsonal guztien oinarritzako printzipioa da", adierazi zuen Begoña Alfaro García lehendakariordeak aurkezpenean.

# Auzipetuak jaso ditu zigor eskaerak

Espainiako Auzitegi Nazionalako fiskaltzarena UPNrena baino handiagoa da. Fidantza gaur pagatu behar du, bestela, preso sar dezakete edo ondasunak bahitu diezaizkiokete. Auzia ohi baino azkarrago tramitatzen ari dira

### ITURMENDI

Sare sozialetan argitaratutako iruzkinak terrorismoa goratzeko eta biktimak umiliatzeko dira, beraz delitua da. Horixe egotzita atxilotu zuen Espainiako polizia iturmendi bat otsailaren 6an. Espainiako Auzitegi Nazionalako Instrukzioko 6 zenbakiko Epaitegi Zentralaren aginduz egin zen atxiloketa, Joaquin Gadea epaileak eskatuta. 63 urteko emakumezkoa haren aurrera hurrengo egunean eraman zuten, eta ez deklaratzeko eskubidea baliatu ondoren aske utzi zuen. Orduetik hamabostean behin Iruñeko auzitegian aurkeztu behar izan da.

Iturmendiarrak Espainiako Auzitegi Nazionalako fiskaltzaren zigor eskaera jaso zuen atzo: bi urte eta erdiko espetxe zigorra eta 6.800 euroko fidantza. Gadea epaileak auzibidea UPN alderdiak aurkeztutako salaketa baten ondorioz abiatu zuen. Epaketan akusazio partikularra dira errejonalistak eta iturmendiarrarentzako bi urte eta egun bateko espetxe zigorra eta 4.500 euroko fidantza eskatu dute.

Iturmendiko elkartasun taldeko kideek azaldu dutenez, auzipetuak fiskaltzak eskatutako dirua gaur bertan aurkeztu beharko du Espainiako Au-



Auzibidea eta atxiloketa salatzeo egindako bilkura. ARTXIBOA

zitegi Nazionalan, bestela atxilotua izan edo bere ondasunen bat bahi diezaiokelako auzitegiak. Taldekideek azaldu dutenez, "fidantza hori jarrita bermatu nahi dute jarri diezaioketen isuna ordainduko duela". Elkartasun taldetik gaineratu dutenez, "epaiketa datarik ez du oraindik, baina Espainiako Auzitegi Nazionalako prozedurak baino azkarrago doa prozedura hau". Gaztigitu dutenez, auzitegia agorrilean itxita dago. Beraz, epaiketa balego aurretik edo ondoren

litzateke. Baina, dirudienez, aurtan izanen da epaiketa.

Aipatu elkartasun taldea atxiloketa izan eta berehala eratu zuen. Astebetera dagoeneko auzipetuaren gastuei aurre egiten laguntzeko dirua biltzen hasi ziren. Horretarako, hainbat ekimen egin dituzte, besteak beste, zozketak. Taldearen beste jardura bat auziari buruzko informazioa ematea da. Horregatik, aipatutako guztiaren berri emateko herri batzarra deitu zuten Iturmendiko plazan, atzo arratsalderako.

0 km  
SAKANAKO  
GIDA

260

KLICK BAKARREAN

<https://guaixe.eus/gida/>







Uharte Arakilgo eskola parean arteak landatu zituzten. ARTXIBOA

# Inbertsioekin aurrekontua gora

Eskola birgaitu egingen da eta igerilekuan legedira egokitzeko lanak egingen dituzte. Udalak haur eskolarako bigarren unitatea eskatu du. Bitartean turbina argindar sarera lotzeko zain dago. Eta gazte alokairuko etxebizitza egitasmoa lantzen segitzen du

**Alfredo Alvaro Igoa** UHARTE ARAKIL. Uharte Arakilgo Udalak aurtengo aurrekontuan 4.105.202,60 euroko sarrerak aurreikusi ditu, joan den urtean baino 76.203,61 euro gehiago. Udal kontuek, berriz, 4.104.779,62 euroko irteerak jaso dituzte, 2023an baino 136.643,23 euro gehiago. Txomin Uharte Baleztena alkateak azaldu du aurrekontuan hiru proiektu sartzak eragin duela aurrekontuaren hazkundean. Batetik, "Erreka kaleko sareak eta zorua berritzeko lanekin aurten aurrera edo atzera egin behar dugu. Lan horrekin ziurtasunak baino zalantza gehiago ditugu", jakinarazi du alkateak.

Beste proiektua da legeak esaten duena betetzeko igerilekuan egin beharreko lanak. Uda pasa ondoren egingen litzateke obra, hiru hilabeteko epean. Lanak 206.216,34 euroko (BEZik gabe)

aurrekontua du. Alkateak azaldu duenez, igerileku handia ez da moldatuko eta 310 metro karratuko azalera izaten segituko du. Baina haren ura biltzeko kanala eta hondartzak bai berrituko direla. Kanala kaltetuta dago, eta horrek sistemaren funtzionamendu egokiari eragiten dio. Bestalde, igerilekua inguratzen duen hondartzak ez du malda egokirik (%2) urak bainu eremuaren kanpoalderantz husteko, eta bainu eremua inguratzen duten babes hesiek ez dute betetzen erortzeko arriskuaren aurrean segurtasunari

**ESKOLAKO LANEK 850.000 EURO BAINO GEHIAGO BALIO DUTE, ETA UDALAK %85EKO LAGUNTZA LORTU DU**

buruz indarrean dagoen araudia. Gainera, igerilekurako bi sarbideetan irisgarriak diren bi dutxa jarriko dira.

Bestetik, umeak plisti-plasta ibiltzeko bi igerileku daude gaur egun (81,77 eta 17,5 m<sup>2</sup>-koak). Biak kendu eta berri bat egingen da, 78,6 m<sup>2</sup>-ko azalera izanen duena eta legean jasotako neurriak eta ezaugarriak izanen dituena. Babes hesia eta hondartza berriak egingen dira ere. Sarbidean dutxa irisgarria izanen da.

## Ikastetxe publikoa

Eskolaren birgaitze integrala egingen du udalak. "Dagoeneko emanak ditugu eguzki plakak jartzeko, argiteria berritzeko eta biomasako galdara jartzeko lanak. Eskolaren inguratzailer termikoa ematea besterik ez zaigu falta", jakinarazi du alka-

teak. Lanek 850.000 euro baino gehiago balio dute. Uharte Arakilgo Udalak Europako Next Generation dirulaguntzen barruan Dus 5000 programako dirulaguntza jaso du eta inbertsioaren %85 bide horretatik estaliko du. "Lanak 2025eko azarorako despedituta egon behar dute", zehaztu du Uhartek.

Ikastetxe berak haur eskola hartzen du, eta udalak unitate bat gehiago jartzeko eskaera egin dio Nafarroako Gobernuo Hezkuntza Departamentuari, "bigarren kontzertu bat. Zerbitzua emateko, jendea kalean ez uzteko egin dugu eskaera. Ikasturte berrirako lortu nahi genuke", azaldu du alkateak. Gaineratu duenez, "ikastetxean ez da lan handirik egin behar bigarren unitatea hartzeko; bi gauza egokitu besterik ez, oso obra xumea eskatzen du".

Bestetik, argiteria publikoa berritzeko eta LED argiak jartzeko lanen fase berri bat ere egingen du Uharte Arakilgo Udalak. Felipe Gorriti eta San Migel kaleen txanda izanen da oraingoan. Lan horretarako 35.000 euro inguru bideratu ditu udalak. Alkateak azaldu duenez, azken fasea Erreka kalekoak aldatuko lirateke. Aurten egingen den beste lan bat da Itsesiko aterpea. Zehazki, lanen aurreneko fasea: amiantoa kendu, azpiegiturak hobetu eta zorua botako da.

## Zain

Beriain mendiaren magalean dagoen Ganbeletako iturburutik heldu den goi hornidurako hodian argindarra sortzeko turbina jarri zuen udalak, Itsasgainen, ur biltegiaren ondoan. "Lanak duela urte bat egin ziren eta oraindik ere Iberdrolakoak etortzea eta turbina sarera lotzeko zain gaude", azaldu du Uhartek. Atzerapenagatik kezka azaldu du, "lanak aurten justifikatu behar baititugu". Turbinak sortuko duen elektrizitatearekin igerilekua hornituko da, eta soberan dagoena udalaren jabetzako hainbat kontsumoren artean partekatuko da. Lanak

**ELEKTRIZITATEA SORTZEKO TURBINAK URTE BAT GELDI DARAMA, IBERDROLAK EZ DU SARERA LOTU**

85.000 euroko aurrekontua izan zuen, eta Nafarroako Gobernuaren aurrekontuan jasoa dago EH Bilduren emendakin bati esker.

Bestetik, udalak San Joan kalearen 7. zenbakian dagoen Lankuntzaenea etxean gazte alokairurako bi etxebizitza egin nahi zituen. "Proiektua eginda dago. Etxebizitza Departamentuan aurkeztu genuen, eta gai tekniko batengatik atzera bota zigiten. Ikuspegi desberdinak ditugu horretan. Ideia berrirako lantzen ari gara, eta aurrekontuan lan horretarako ez dago dirurik", argitu du alkateak.

Aldi berean, Nafarroako Gobernuaren hurrengo toki Azpiegitura Planaren zain dago Uharte Arakilgo Udala. Aurrekoan erreserban gelditu ziren bi lan aurkeztuko ditu berriro: Itxesia kaleko hornidura sare berritu nahi du, mikrozententuzko hodia ordezkatzeko, eta, bestetik, Itxesi eta Errekabitate kaleetako sareak berritu nahi ditu. Lan horiek 400.000 eurotik gorako aurrekontua dute.

Bestetik, udalak ere begiz jota du Errekabitate kalean dagoen bere eraikin bat, garai batean mojek erabili zutena. "Hura zaharberritzea aurrekontu handia eskatzen du, 800.000 eurotik gertu. Dirulaguntza eskatu genuen eta atzera bota zigiten. Etorkizunean egingen den lan bat da", azaldu du alkateak. Barga aldean, Auzasoroburur dagoen harrobi zaharra berreskuratzeko proiektua lantzen ari da udala. "Ondoren ikusiko dugu hura larrea, angioa edo baso bilakatuko den".

## Ordenantza

Herriko bide eta pisten erabile-ra arautzen duen ordenantza onartu zuen Uharte Arakilgo Udalak joan den urtean, "erabilitzaile guztiek modu harmoniatzuan erabil ditzaten ahalbidetzeko, natura babesteko eta egoera onean mantentzeko". Beste gauza askoren artean, udalaren bide eta pistetan ibilgailu motordunekin zirkulatzeko debeku orokorra egonen da. Aldi berean, haietara askatasunez sartzeko baimena zeinek eska dezakeen eta hura eskatzeko prozedura zehaztu ditu. Alkateak azaldu duenez, "ordenantza aurten indarrean jartzeko asmoa dugu. Aurretik, esaterako, seinaleak jarri eta baimen txartelak banatu beharko dira".

## Altsasuko auziko seigarren zigorra beteta

Oihanek asteazkenean bukatu zuen zigorra. Jonani eta Juleni oraindik 16 hilabete falta zaizkie

### ALTSASU

Altsasuko Auziagatik Espainiako auzitegiek jarritako zigorra bete du Oihanek. Hasiera batean jakinarazi zioten maiatzaren 7an geldituko zela aske, Jokinekin batera. Baina data gerturatzean akatsa izan zela eta hilabete gehiago zuela betetzeko jakinarazi zioten espetxeko arduradunek. Guardia Civilak Oihan 2016ko azaroaren 14an atxilotu zuen. Ordutik Oihanek 2.767 egun egin ditu zigorpean, haietatik 1.326 egun preso egin zituen. Eta preso egon den bitarte horretan Soto del Real, Navalcarnero eta Zaballako espetxeak ezagutu zituen Oihanek. 2020ko garilaren 3an hirugarren gradua eman eta kontrol neurriekin aske utzi zuten; hau da, kartzelara ez bueltatzeko hainbat neurri bete behar izan ditu ordutik.

Auzikofiskaltzak hasiera batean Oihanendako 62 eta erdiko espetxe zigorra eskatu zuen. Terrorismo lau delitu eta mehatxu terroristako delituak egitea egotzi zion. Espainiako Auzitegi Nazionalak 13 urteko zigorra ezarri zion 2018ko garagarriaren 1ean. Auzitegi bereko Apelazio Epaitegiak 2019ko martxoaren

7an emandako epaiak berretsi zituen. Azkenik, Espainiako Auzitegi Gorenak bederatzita urte eta erdiko zigorra ezarri zion Oihani 2019ko lastailaren 9an.

### Bi falta dira

Altsasuko Auziagatik zigorra betetzen ari dira Jonan eta Julen, 2025eko lastailan geldituko dira erabat aske. Biak 2016ko azaroaren 16an atxilotu zituzten. 36 egun preso egon ondoren epaiketaren zain baldintzapean aske utzi zituzten. Zazpi urte eta erdiko espetxe zigorra jaso zuten, baldintzapeko askatasunean betetzen ari direna.

Adinez nagusi ziren zortzi auzipetuetan zigorra betetzen lehena Ainara izan zen. Ez zuten preso sartu, baina hainbat urtetan hainbat kontrol neurri bete behar izan zituen. Iñakik, berriz, 1.283 egun egin zituen zigorpean, haietatik 598 kartzelan preso. Aratzek, berriz, 2.028 egun pasa zituen zigorpean, horietatik 599 preso. Jokinek maiatzaren 7an bete zuen zigorra, 2.730 egun egin zituen zigorpean. Adur maiatzaren 10ean gelditu zen aske, zigorpean 2.732 egun egin ondoren.

## DUELA 25 URTE...



## Urdalur hustu zen

Garagarriaren 5etik 12ra bitartean Urdalur urtegiak uraren %80 galdu zuen. Ur ihesaren ondorioz, bere garaian urpean gelditutako bordak, atzera ere, agerian zeuden. Altzania ibaian ur emaria bermatzen zuen isuri ekologiko hodian matxura izan zen, eta handik ihes egin zuen urak. Urpekariak hura konpontzera jaitsi zirenean, uraren indar handia murrizteko beste hodi batzuk zabaldu behar izan zituzten. Udarako ura bermatuta zegoen eta Altzania ibaia ez zen lehortu.

# Unibertsitatetik Lakuntzara sariekin

Lakuntzako eskolako bi taldek sari bana lortu dute Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatutako 'Emakumezko zientzialaria izan nahi dut' lehiaketan. Zientzialari banaren berri emanez poster bat eta bi audio grabazio aurkeztu zituzten lehiaketara

### LAKUNTZA

Nafarroako Unibertsitate Publikoak (NUP) Emakumearen, Zientziaren eta Teknologiaren Katedra eta Ikerketako Errektoreordetzak *Emakume zientzialaria izan nahi dut* lehiaketaren seigarren edizioa antolatu du. Lehiaketaren helburua da Nafarroako neskengan zientzia, teknologia, ingeniariaritzeta eta matematikarako bokazioa sustatzea.

NUPeo epaimahaiak sariak asteazkenean banatu zituen. Eta 2019an eta 2022an bezala, aurten ere, saria jaso zutenen artean Lakuntzako eskolako ikasleak zeuden. Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloko mailan Iradi Lanz Senarrek eta Leire Razkin Piñasek accesita lortu zuten. Lehen Hezkuntzako 4. mailako bi ikasleek Hedy Lamarri buruzko posterra aurkeztu zuten lehiaketara. Lamarr aktorea izateaz aparte, George Antheilekin batera egindako patente baten bidez haririk gabeko telekomunikazioaren bidea ireki zuten. Bi ikasleek sari gisa eskuratu dute NUPen sustapen materiala, eskolarako liburu lote bat eta ikasgelarendako NUPen zientzia jardunaldi batean parte hartzeko aukera.

Bestetik, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko lan onenaren



Lakuntzako eskolako Lehen Hezkuntzako 6. mailako bi talde sarituak. UTZITAKOIA

saria Lakuntzako eskolako Lehen Hezkuntzako 6. mailako bi taldek eskuratu dute. Batetik sarituak izan dira Arhane Arraizak, Maren Azpirozek eta Emma Martinek Sophie Germaini buruzko lanagatik. Germain zenbakien teoriaran eta elastikotasunaren ikerketan nabarmendu zen matematikari bat izan zen. Saritutako beste taldea Laia Alegriak, Leire Garciak, Iraia eta Zurine Olletak eta Sara Vergarak osatzen dute. Haiek Marie Curieri buruzko lana egin zuten. Curie erradiologia arloan aitzindaria

izan zen, eta lehena izan zen bi arlo desberdinetan Nobel saria lortzen: Fisikan eta Kimikan.

Bi taldeek audio grabazio bana aurkeztu zuten lehiaketara. El-karrizketa prestatu eta taldekideten artean rola banatu zituzten, batzuek elkarrizketatzaile bihurtu ziren bitartean beste batek emakumezko zientzialariarena egin zuen. Sari gisa honakoa jaso dute: teknologia jostailuak, NUPen promozio materiala, eskolarako liburu lote bat eta ikasgelarendako NUPen zientzia jardunaldi batean parte hartzea.

## Ebaluazioa gaindituta, 55 ikasle unibertsitaterako bidean

Unibertsitatera Sartzeko Ebaluaziora aurkeztu diren D ereduko ikasle sakandar guztiek gainditu dute

### SAKANA

Unibertsitatean Sartzeko Ebaluaziora aurkeztutako 3.468 ikasleetatik % 98,41ek gainditu dute, 55 besterik ez dira izan gainditu ez dutenak eta zazpi ez ziren aurkeztu. Hizkuntzen arabera,

G eta A eredueta (gaztelania) ikasketak eginik nahitaezko fasean matrikulatu ziren 2.541 ikasleen artean, 2.538 aurkeztu ziren eta 2.495 izan dira proba gainditu dutenak, hau da, % 98,31. Bestalde, ikasketa euskaraz egi-

nik (D eredu) nahitaezko fasean matrikulatu ziren 927 ikasleetatik, 4 ez ziren aurkeztu eta 911k gainditu dute, bestela esanda, % 98,70ek gainditu du. Azken horien artean daude Iruñeko Biurdana institutuko bost ikasle irurtzundar eta Altsasu Bigarren Hezkuntza Institutuko 50 ikasleak, aurkeztutako guztiak. Biurdanako beste ikasle bat izena emanda zegoen, baina ebaluaziora ez aurkezte erabaki zuen. Erreklamazioak astelehenera arte aurkez ditzakete.

# Zenbait herritako larrialdi gunetan hainbat arazo

Atez ateko hondakin bilketa ezarria duten zenbait herritako larrialdi gunek gaizki erabiltzen dituzte herritar batzuek: hondakinak kanpoan botata uzten dituzte. Hori kontrolik gabeko isurketa da. Iritsi dira lehen isun proposamenak

## SAKANA

Sakanako Mankomunitateko presidente Aitor Larraza Carre-rak jakinarazi duenez, "hainbat arazo izan ditugu herri jakin batzuetako larrialdi puntuekin". Atez ateko sistema ezarria dagoen herrietan daude larrialdi puntuak. Horiek erabiltzeko herrian etxebizitza izan eta Mank-ek banatutako giltza elektronikoa behar da. Eskaera udalaren bitartez egin behar da. Larrialdi gunek kasu puntualetan bakarrik erabiltzeko dira: etxez etxe-ko bilketarako ezarritako egunetan hondakinak ateratzea ezinezkoa denean, esaterako, asteburuetan bakarrik dauden biztanleen kasuan, edota hondakinaren tamainagatik edo kopuruagatik gakoan zintzilikatu ezin direnean. Hauda, larrialdi gunek ezinbesteko kasuetan bakarrik erabili behar dira. Atez ateko sistema duten herrietan egunerokoan, gakoan utzi behar da egun horretan atera behar den hondakina.

Zenbait herritan larrialdi gu- neen erabilera okerra egiten da eta "udalak edo Mank kontrolik gabeko isurketak biltzera behartuak gara astero". Hondakinak botata uzteak aparteko lana eragiten die. Horretaz aparte, herritar asko larrialdi guneen aldamentean dagoen "zikinkeriatatik" kexatu egin dira. "Botata uzten dituzten hondakin horiek jasotzen diren heinean ez da ezer gertatzen, baina, legearen arabera, hondakin bilketa sistemaren bitartez kudeatzen ez dena kontrolik gabeko hondakinaren isurketa da. Hondakinak horrela botata utzita ez baitute inolako tratamendurik jasoko", argitu du Larrazak. Hondakinak zenbat eta beranduago bereizi, orduan eta kalitate txarragoa dute materialek eta, beraz, zailagoa da birziklatzea. Eta errazago hondakindegian bukatzea. Tuterako Culebrete hondakindegira eraman



Olatzagutiko larrialdi gune ondoan lurtean botatutako hondakinak. UTZITAKOIA

## "GAIKAKO BILKETAN ERREFERENTEAK GARA, GEHIENEK GAUZAK ONDO EGITEN DITUGULAKO"

eta han botatzeagatik Mank-ek pagatu egiten du. Bestalde, birziklatzeak hondakinak zaborte-gira eramateak baino 9 aldiz enplegu gehiago sortzen du, eta berrerabiltzeak 30 aldiz enplegu gehiago sortzen du, beraz, etxean hondakinak ez bereizteak lanpostu asko galtzea dakar.

Mank-ek, udalekin batera, jar-duera protokolo bat idatzi du, eta protokolo horri hitzarmen itxura eman diote. Hori eginda, egoerak behartuta eta gogoz kontra, lehen isun espedienteekin hastea erabaki du. "Tamalez, Sakanan lehen aldiz emanen den neurria da, baina zenbait puntutan egoera jada ez da jasangarria". Puntu gatazkatsuenetako bat Olatzagutiko larrialdi gunea da. Egoerak behartuta, Mank-ek han zaintza sistema jarri zuen. Eta Olatzagutian lehen bi isun proposamenak egin ditu, 300

eurokoa bakoitza. "Mank-en ordenantzen arabera, gutxieneko kopurua izango litzateke hori, arau hauste arintzat jotzen baita. Baina zigorrak 300 eta 2.000 euro artean izan daitezke". Bide hori hartzearekin batera, Mank eta Olatzagutiko Udala elkarlanean ari dira "herrian zerbitzu hori hobetu dadin. Kokapen berri baten proposamena landuko da, eta, aldi berean, sentsibilizazio kanpaina egingen da".

Larrazak nabarmendu duenez, "ezin dugu ahaztu Nafarroan gaikako bilketan erreferenteak gara, eta hori sakandar gehienek gauzak ondo egiten ditugulako da". Eta gogorarazi du herritarrek hondakinak kudeatzeko hainbat zerbitzu dituztela eskura. Esaterako, etxean dauden bolumen handikoak Emausko trapuketarietxetik jasotzen dituzte, eta Arbizon eta Altsasun garbiguneak daude. "Ondo egiteko aukera asko daude, baina pertsona batzuk ez dira interpelatuta sentitzen hondakinak bereizteko lege betebeharragatik, eta, zoritxarrez, horrelako neurriak erabiltzea besterik ez zaigu gertatzen", azaldu du Larrazak.

# FESTAK

## LIZARRAGA

### SAN ADRIAN FESTAK

#### EKAINAK 15 Larunbata

10:30 Ezkilen errepikarekin batera San Adrianera igoera.  
13:00 Meza, ermitan.  
17:30 Kalejira.  
18:30 Menditik jaitsiera.  
19:00 Auzatea, alkatearen etxean.  
20:00 Lizarragako Zortzikoa, plazan.  
20:30 2023an jaiotakoei zapia ematea.  
Bizphiru pelau taldearekin dantzaldia.  
22:00 Herri afaria, frontoian.  
Gauean, Bizphiru pelau taldearekin dantzaldia.

#### EKAINAK 16 Igandea

11:00-14:00 Puzgarriak eta jokoak, frontoian.  
17:30 Benito Ros Trial ikuskizuna, frontoi parean.  
19:00 Auzatea, plazan. Ondoren, zezensuzkoa.

#### EKAINAK 17 Astelehena

Goizean zehar, Iñaki Bizkairekin kalejira.  
11:00 Gosaria, herriko plazan.  
13:00 Bermuteo.  
17:00 Emakumeen pala partidak, frontoian.  
19:00 Auzatea eta Joselu Anaiakekin dantzaldia, plazan.  
21:00 Herri afaria, plazan.  
23:30 Joselu Anaiakekin dantzaldia.

## ETXARRI ARANATZ

### SAN ADRIAN EGUNA

#### EKAINAK 16 Igandea

09:00 Udaltzaren kalejira,

udaletxetik San Adrinera.  
11:00 Fritada.  
12:00 Elizkizuna.  
13:00 Dantza taldearen emanaldia.  
15:00 Bazkariak.  
17:00 Txistularien erronda mahaiz mahai.  
18:00 Kintoen dantzakia.  
19:00 Kalejira herrira.  
20:00-21:00 eta 22:00-02:00 Trikiteens taldea, plazan.

## IZURDIAGA

### FESTAK

#### EKAINAK 21 Ostirala

18:00 Txupinazoa, trikiekin eta buruhandiekien girotua.  
18:30 Kartel lehiaketako irabazleei sari banaketa.  
22:00 Kalderete afaria (kaldereteen, etxeko tortillen eta postreen errenboltoa mantenduko da).  
00:00-04:00 DJ Irurtzun.  
04:00 Gaupasa tabernan.

## UHARTE ARAKIL

### SAN JUAN FESTAK

#### EKAINAK 21 Ostirala

18:00 Festei hasiera emango dien suzeria.  
Jarraian, 2023an jaiotako haurrei zapi banaketa, konpartsak lagunduta.  
Auzatea jubilatuen eskutik.  
19:45 San Migueli harrera.  
20:00-22:00 Eztanda txaranga. UAGAK antolatuta.  
21:00 Tortilla patata txapelketa.  
00:30-02:30 Iratzar taldearekin dantzaldia.  
03:00-05:00 DJ Zuribostnerisei.



ARTXIBOA

**LIZARRAGA** Ezkil errepikaren ondoren San Adrianera erromeriarekin hasiko dira San Adrian festak larunbatean Lizarragan.



Irati Ugartemendia  
Mendinueta  
NA 72449182X  
Bazkide zk. 1353  
Epemuga 2026/04

### **BERGARA OPTIKA-ZENTROA**

%15eko deskontua graduatutako betaurreko osoetan.  
%10ekoa beste edozein artikulutan eta doan ikusmenaren errebisioa.

640 12 66 04  
San Martin kalea, 6 • AGURAIN

### **13 UDABERRI LORE-DENDA**

30€ko erosketengatik garaiko landare bat opari.

948 56 42 60  
Gartzia Ximenez, 31 • ALTSASU

### **ALFA 54**

Etxe edo pisu baten erosketagatik 100€ko txekoa opari.

948 56 27 11  
San Juan, 54 • ALTSASU

### **GIXANE ESTETIKA EMOZIONALA ETA NATUROPATIA**

%10eko deskontua produktu zehatzetan (erositako produktu bakarrean).

948 56 30 29  
Zela, 27 - 2 • ALTSASU

### **IORTIA HORTZ-KLINIKA**

%10eko deskontua aho garbiketetan eta hortz ateratzeetan. Errebisioak doan.

948 46 76 03  
Altzania, 3-1. E eskilara Ezk • ALTSASU

### **IRU BIDE HOTEL-JATETXEA**

Ostiraletako eguerdiko menuan (15€) eta asteburuetako eguerdiko menuan (35€) kafea doan.

948 46 88 76  
Gasteizko etorbidea, 3 • ALTSASU

### **KIKI ARGAZKI-DENDA**

15x20 cmko 8 argazkiko erreportaje batean beste bi argazki opari.

948 46 90 23  
Iortia, 1 • ALTSASU

### **NUEVA IMAGEN ILE-APAINDEGIA**

%10eko deskontua.

948 46 70 74  
San Juan, 54 • ALTSASU

### **SAKANA OPTIKA**

%15eko deskontua graduatutako betaurreko osoetan.  
%10ekoa beste edozein artikulutan eta doan ikusmenaren errebisioa.

948 46 72 24  
Altzania, 6 • ALTSASU

### **SORKUNDE HARATEGIA**

50€ko erosketetan etxeko produktua doan.

948 46 72 24  
Altzania, 6 • ALTSASU

### **TXIKITXO HAUR JANTZIAK**

100€tik gorako erosketetan %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

948 46 73 08  
Ferialekua, 2 • ALTSASU

### **TXIKITXO LENTZERIA**

100€tik gorako erosketetan %10eko deskontu-txartel bat hurrengo erosketan erabiltzeko.

948 46 73 08  
Ferialekua, 2 • ALTSASU

### **ARRUAZUKO OSTATUA**

Asteburuko menuarekin kafea edo txupittoa doan.

948 57 60 32  
Kaleaundi, 1 • ARRUAZU

### **ARGIRO OPTIKA**

%10eko deskontua graduatuetan.

948 46 12 52  
Eraga etorbidea, 1 • ETXARRI ARANATZ

### **BAIZA MOTOR**

Stihl produktuetan, 500€ ko gastuarekin, %10eko deskontua (beste eskaintzekin ez bateragarria).

948 46 17 34 • Zumurdineta, 6 • ETXARRI ARANATZ • IRURTZUN

### **ETXARRI HORTZ-KLINIKA**

%10eko deskontua garbiketetan.

948 46 03 15  
Nagusia, 27 • ETXARRI ARANATZ

### **KAXETA LIBURU-DENDA**

%5eko deskontua irakurketako liburuetan.

948 46 04 77  
Larrañeta, 22 • ETXARRI ARANATZ

### **LIZARDI ESTETIKA-ZENTROA**

%5eko deskontua tratamendu guztietan.

649 44 40 18  
Nagusia, 12-1. B. • ETXARRI ARANATZ

### **URGAIN ALBAITARITZA**

%20eko deskontua kontsultan.

948 56 70 32  
Araña, 2 • ETXARRI ARANATZ

### **FRUITIS FRUTA-DENDA**

%10eko deskontua fruitu lehorretan.

694 485 874  
San Martin, 16 • IRURTZUN

# Giltzarri za!

## TEXARTU

%10eko deskontua dendako hainbat artikulutan.

948 22 64 95  
San Frantzisko, 8-10 • IRUÑEA

## MARTXUETA LIBURU-DENDA

30€tik gorako erosketetan, %10eko deskontu bala hurrengo erosketarako.

948 60 07 04  
Lizarra, 10 • IRURTZUN

## PATXI GALARZA HARATEGIA

50€ko erosketetan etxeko produktua opari.

948 60 06 85  
Aralar, 1 • IRURTZUN

## ZURE EKO-DENDA

%10eko deskontua kontsulta terapeutikoetan.

659 042 372  
San Martin, 8 • IRURTZUN

## VIZU ILE-APAINDEGIA

Edozein produktu erosten, bigarrenen %30eko deskontua.

948 56 36 35  
Ziminkale, 5 • ITURMENDI

## NEREA ILE-APAINDEGIA

Garbitu eta apaindu 16€.

948 57 63 31  
Ermiñeta, 4 • LAKUNTZA

## TANIA ARRAINDEGIA

100€ko gastuarengatik, etxeko produktua doan.

617 99 83 34  
Nagusia 39 - 3.A • OLAZTI

## IZASKUN BEUNZA ARKITEKTURA

%10eko deskontua obra berri eta eraikuntza berrien proiektuetan eta %20a ziurtagiri energetikoan.

617 99 83 34  
Nagusia 39 - 3.A • OLAZTI

## VALCARCE

0,06€ko deskontua gasolinan, 0,10€koa gasoleoan.

948 56 45 13  
N-1 errepeidea, 396. Km • OLAZTI

## KALUXA TABERNA

Menu bereziarekin kafea edo txupittoa doan.

948 46 92 91  
Kaluxa, 3 • URDIAIN

## LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

50€ko erosketetan, etxeko produktua opari.

948 56 21 57  
Elizapzi, 14 • URDIAIN

## KIXKUR ESTETIKA-ZENTROA

Edozein produktu erosten %10eko deskontua.


686 41 23 30  
Egubera, 17 • ZIORDIA

## BERRIA EGUNKARIA

Harpidetza eginez gero, deskontua.

EUSKAL HERRIA

Abantaila guztiak eguneratuta ikusteko:  
[www.guaixe.eus/kideak](http://www.guaixe.eus/kideak)



## AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEN 13:00AK BAINO LEHEN.** Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / [kultura@guaixe.eus](mailto:kultura@guaixe.eus)

## OSTIRALA 14

**ARBIZU Festa.**

Arbizuko Herri Eskolaren ikasturte amaierako festa. Plazan.

17:00 Ipuin kontalaria.

17:30 Tailerrak eta herri kirolak.

18:00 Haurrendako fruta.

19:00 Play backa.

19:45 Talde argazkia.

20:00 Aatea.

**BAKAIKU Jokoak.**

Abentura eta soka jokoak. 11 urtetik aurrera. Bakaikuko Udalak eta Etxarri Aranazko oinarrizko gizarte zerbitzuetako mankomunitateak antolatuta.

17:00etan, parkean.

**ALTSASU Tailerra.**

Emakumeendako kirol tailerra: Defentsa pertsonala. Nafarroako Kirol eta Jarduera Fisikoko institutuak eta Altsasuko Udalak antolatuta.

17:00etatik 19:00etara, Zelandi kiroldegian.

**IRURTZUN Hitzaldia.**

Permakulturari buruzko sarrera Ruben Hernandez biologoak bideratutako solasaldia. Gaztelaniaz.

18:00etan, liburutegian.

## LARUNBATA 15

**ALTSASU Tailerra.**

Sendabelar tailerra: sendabelarren bilketa eta ukendua egin. Norberak bere potetxoa etxera eramanen du. Iñigo Aritza Ikastolako HiZPrO taldeak udaberriko eskaintzaren barruan antolatuta.

10:00etan, ikastolan.

**ALTSASU Pilota txapelketa.**

Mutilen Eskuz Binakako Nafar Kirol Jokoen hirugarren faseko partidak.

Benjamin bigarren maila: A. Balisa – I. Ocariz (Berriozar) / A. Gartzia – I. Iltzarbe (Ardoi)

Kimuak bigarren maila: U. Azkona – A. Arguelles (Pilotajauku) / S. Berdud – A. Lorea (Zugarralde)

Haur bigarren maila: M. Orrio – A. Lerin (Lagunak) / A. Balda – U. Arza (Ultzama)

Kadete bigarren maila: A. Zubiria – J. Olarra (Aldabide) / U. Pariente – M. Urrutia (Zugarralde)

Gazte bigarren maila: J. Arregi – I. Garatea (Aurrera) / M. Albizu – A. Saez (Eraso)

10:00etatik aurrera, Burunda frontoian.

**OLATZAGUTIA Erakusketa.**

IV. Kotxe Kontzentrazioa, DJ Miami girotuta eta haurrendako puzgarriak, Barandik antolatuta.

10:30etik 14:00etaran, Barandi tabernaren terrazaren inguruan.

**ETXARRI ARANATZ****Txirindularitza lasterketa.**

Etxarri Aranatz eta Ergoienako Muinoak Sari Nagusia kadeteen mailako lasterketa: 64,5 kilometro.

11:00etan, plazan

**OLATZAGUTIA Festa.**

Olatzagutiko Eskolaren festa.

11:30 Herri kirolak.

12:00 Tailerrak: txapak, eskumuturrekoak, margoak.

13:30 Talde argazkia, haurrek eskolan margotutako pankartarekin

14:00/14:30 Bazkaria: lehenengo haurren txanda eta ondoren helduen txanda, eskolako frontoian. Ondoren, bingoa.

16:00 Puzgarriak.

**IRURTZUN Larrazpi Eguna.**

Atakondoa frontoia.

17:00 Karropoteoa.

23:00 Kontzertuak: Ostikoka punk oi eta Deserri taldeak.

ONDOREN, tekno gaua: DJ Zaze eta DJ Ara-Kill.

**ALTSASU Dantza ikuskizuna.**

Harry Potter Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako haur eta gaztetxo ikasle taldeen ikasturte amaierako jaialdia.

17:00etan eta 19:00etan, Iortia kultur gunean.

**ZIORDIA Lasterketa.**

XI. Ziordiko Lasterketa Solidarioa: Paris 365, KM X ELA eta Aurrera Markelekin ekimenen alde. Ziordiko Running Taldeak eta Ziordiko Udalak antolatuta.

17:00 Haurren proba.

17:30 Martxa solidarioa: zirkuitoari bira bat (2 km).

18:00 Nagusien lasterketa (6,8 km).

**IRURTZUN Kontzertuak.**

Duo recuerdos bikotearen kontzertua. 19:00etan, Pikuxar plazan.

## ASTELEHENA 17

**ALTSASU Elkarretaratzea.**

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, Zumalakarregi plazan.

**IRURTZUN Hitzaldia.**

Etxebizitza kooperatibari buruzko lurralde zabalkunderako saioak: Erabilera lagapeneko etxebizitza kooperatibak bultzatzeko Plan Estrategikoa.

17:00etatik 18:30era, kultur etxean.

**IRURTZUN Hitzaldia.**

Teknoadineko Landalab proiektuaren lehenengo saioa: Harreman sozial positiboak eta zaintza komunitarioa.

18:00etan, jubilatuen elkartean.

**ALTSASU Solasaldia.**

Nafarroako ostalaritzako hitzarmena aztergai. Zure eskubideak bermatzen dira? Sakanako Kontseilu Sozialistak eta Laneko Autodefentsa Sareak antolatuta.

19:00etan, Gure Etxean.

## ASTEARTEA 18

**ETXARRI ARANATZ Hitzaldia.**

Teknoadineko Landalab proiektuaren lehenengo saioa: Harreman sozial positiboak eta zaintza komunitarioa.

18:00etan, kultur etxean.

## ASTEAZKENA 19

**ALTSASU Hitzaldia.****ALTSASU Koldo Arnanz arte tailerreko ikasleek 2023-2024 ikasturtean egindako lanen erakusketa.**

Maiatzaren 31tik ekainaren 15era arte. Iortia kultur gunearen erakusketa aretoan.



JUANPE HIGUERO

**ETXARRI ARANATZ Indusen ibilbideak Himalaiatik Karatzira. Pakistan, begirada sozial bat erakusketa. Ekainaren 11tik 23ra. Liburutegian.**

Teknoadineko Landalab proiektuaren lehenengo saioa: Harreman sozial positiboak eta zaintza komunitarioa.

17:30ean, jubilatuen elkartean.

## OSTEGUNA 20

**LAKUNTZA Batzarra.**

Hatortxu Rock 30 inguruko batzar informatiboa.

18:00etan, udaletxeko batzar gelan.

## OSTIRALA 21

**ETXARRI ARANATZ Festa.**

San Donato eskolaren ikasturte amaierako jaia.

GOIZEAN zehar, Sakana Herri

Eskolako pankarta margotu.

13:00 Seigarren mailako ikasleei agurra eta opariak ematea.

14:30 Haurrendako bazkaria.

15:00 Helduen bazkaria.

15:00-17:00 Puzgarriak.

17:30 Patinaje eta dantza erakustaldia.

18:00 Belaunaldien arteko kirol proba, aurpegia margotzeko tailerra eta ponpak. Beroa egiten badu jolasak eta ur gerra.

**IRURTZUN Kontzertua.**

Jo&Swiss Knife taldearen kontzertua. 19:00etan, Gernika plazan.

**IRURTZUN Afari solidarioa.**

Palestinarekin afari solidarioa, Iratxok antolatuta. Ondoren, Gazako uraren kutsaduraren inguruko escape rooma. Izena ematea: Iratxon eta Pikuxarren, ekainaren 17ra arte. Onuraduna: UNRWA.

21:00etan, Iratxo elkartean.

## IRAGARKI SAILKATUAK

### LANA/NEGOZIOAK

#### LAN ESKAINTZA

**Aurtengo udan Urdiaingo igerilekuak eta taberna hartzeko jende bila gailbitza:** Norbaitek interesik edukiko balu, jar dadila harremanetan helbide elektroniko honen bidez [aitziberelkarte@gmail.com](mailto:aitziberelkarte@gmail.com).

**Mank-ek Ur Zerbitzuan ofizial lanpostua betetzeko la poltsa osatu nahi du:** Oposizio lehiaketa bidez egingo da. Bete beharreko eskakizunak [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian ditu. Oposaketan izena emateko epea ekainaren 18an amaitzen da.

### LEHIAKETA

**Zurumurruen kontrako ipuin laburren V. Lehiaketa:** Aniztasunean elkarbizitza sustatuko duen istorioa sortu eta lehiaketan parte hartzera gonbidatuta zaudete Manken Anizartean zerbitzua erakutik. Bidali zure ipuina [anizartean@gmail.com](mailto:anizartean@gmail.com) helbide elektronikora uztaillaren 30a baino lehen. Informazio gehiago [www.sakana-mank.eus](http://www.sakana-mank.eus) web orrian. Zalantzak 648 070 710 telefonora deituz.

### IKASTAROAK

**Nafar Lansare-k ikastaro hauek antolatu ditu Altsasuko LH institutuak:** Espazio irekietako eta industria-instalazioetako garbiketako ikastaroa (130 orduko, irailaren 9tik urriaren 14ra arte, 09:00etatik 14:00etara) eta industria ekipoen mantentze eta muntaia mekanikoa (70 orduko, urriaren 10etik 31ra, 15:30tik 20:00etara). Izena emateko enplegu zerbitzuan galdetu.

**Sakanako Mankomunitateko udako kirol campusetan izena ematea zabalik:** Futbol campusa Uhartre Arakilen izango da bi txandatan; 2012,2013 eta 2014 urteetan jaiotako neska mutikoentzat ekainaren 25etik 29ra bitartean eta 2009, 2010 eta 2011 urteetan jaiotakoentzat uztaillaren 1etik 5era, bi txandak goizeko 10:00etatik 13:00etara ordutegiarekin. Prezioa 35 eurokoa izango da [kirolak@sakana-mank.eus](mailto:kirolak@sakana-mank.eus) helbidera idatziz edo 683 343 854 telefonora deituz. Triatloi campusa uztaillaren 8tik 19ra izango da, Arbizuko kiroldegian, 10:00etatik 12:30era. Honen prezioa 40 euro izango da eta izena emateko epea uztaillaren 2an amaitzen da.

**Lakuntzako adinekoendako mugikor erabilpen ikastaroa:** Android motako telefonoak nola erabiltzen diren ikasteko ikastaroa egingo da ekainaren 17tik 21era, egunero bi ordu (16:00-18:00 edo 18:15-20:15). Partaide bakoitzak bere mugikorra eraman behar du. Izena emateko deitu 948 012 012 telefonora.

### OHARRAK

**Lakuntzan azulaz berrezia gazteekin:** 12-16 urte bitarteko gazte guztiak azulaz parte hartzera deituta daude plazako eta Abarrategiko bankuak margotzeko. Bihar, larunbata, ekainak 15, 09:00etatik 13:00etara.

**Lakuntzako musika eskolan izena ematea zabalik:** Informazio osoa [www.lakuntza.eus](http://www.lakuntza.eus) web orrian. Ekainaren 19ra arte eman daiteke izena.

**Arakilen aisialdi campusean izena emateko epea zabalik:** Astelehe-

netik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara adin tarteka banatuta izango dira. Izena emateko epea ekainaren 24an amaitzen da. Informazio gehiago eta izen ematea 634 584 226 edo 948 500 101 telefonora, edo [arakilkultura@gmail.com](mailto:arakilkultura@gmail.com) helbidera idatziz.

**Olaztin San Joan suak egiteko oharra:** Udarak suak piztu ahal izateko lurra babesteko materiala eskatzeko epea ekainaren 17an amaitzen dela ohartarazten du.

**Gurutze Gorriak Altsasuko Otadia aterpetxean laguntzeko bultzak behar ditu:** Errefuxiatuei gaztelaniazko klaseak emateko astean behin edo bitan eta haurrekin jolas jarduerak egiteko. Astean bitan litzateke, uztailla eta abuztuan. Gurutze Gorriarekin harremanetan jartzeko 617 351 603 telefonora dei dezala edo aterpetik pasa dadila.

**Uhartre Arakilen haurrendako udako ludoteketan izena ematea zabalik:** Uztaillaren 1etik 24ra izango da, 9:00etatik 13:00etara. Kostua 200 eurokoa izango da (izena ematen duten haurren arabera alda daiteke). Izena ematea Uhartre Arakilgo Udaltzaren edo 948 464 036 telefonora deituz.

**Etzaxri Aranazko Abesbatza Txikiak zure aholkaria behar du:** 6-15 urte bitarteko haurrez osatuta dago abesbatza eta kide berrien bila dabil. Interes duenak harremanetan jar dadila [corotxikis@gmail.com](mailto:corotxikis@gmail.com) helbidera idatziz. Informazio gehiago [www.coraldebaxiaranaz.com](http://www.coraldebaxiaranaz.com) web orrian.

[iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)  
[www.iragarkilaburrak.eus](http://www.iragarkilaburrak.eus)

### OROIGARRIA



## Txomin Garcíandia Goñi


III. urteurrena  
(Ekainaren 16an hil zen)

Xiltasunien izendu die zu lana ta biziye,  
Txomin, ta izan zanangatik  
eta yakusi dezunangatik,  
ez duzugu sekula ahaztuko.


Insaustin etxekuek

## EGURALDIA ASTEBURUAN


### Ostirala, 14




### Larunbata, 15



### Igandea, 16



### Astelehena, 17



### ESKELA



## Juanita Ijurko Mendiola



Sor Iñaki

(Argentinan hil zen, 2024ko ekainaren 12an, 94 urte zituela)

Lindo izan zen oso, izeba

Zure familia

Argentina - Etxarri Aranatz



**ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75**  
edo [eskela@guaixe.eus](mailto:eskela@guaixe.eus)

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 € / 106,5 € / 143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.

### IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

[IRAGARKI@GUAIXE.EUS](mailto:IRAGARKI@GUAIXE.EUS)

[WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK](http://WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK)

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

### ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarki Guaixe paperean eta [guaixe.eus](http://guaixe.eus)-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

### HERIOTZAK

- **Esther Mendieta Araña**, ekainaren 7an Uhartre Arakilen.
- **Miguel Berastegi Arbizu**, ekainaren 10ean Arbizun

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

# IRACHE

## tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu - Irurtzun - Lekunberri - Betelu - Leitza

## "Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- 📧 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 [www.tanatoriosirache.es](http://www.tanatoriosirache.es)

# Banakakoa: txapeldun bat, eta bi txapeldunorde

**AIZKORA** Urrezko Aizkolarien 23 urtez azpiko finalean Jon Erdozia gailendu zitzaion Aritz Oiarbide lehengusuari, eta 18 urtez azpiko finalean Oier Mitxelenak segundo gutxigatik galdu zuen finala. Maila onean jarraitzen dute gure aizkolariek

**Maidar Betelu Ganboa** SAKANA Urrestillako Txikuri pilotalekuan XXVII. Urrezko Aizkolarien Banakako Txapelketako final handiak jokatu ziren igandean. Finalek ikusmin handia piztu zuten. Maila nagusian, Urrezko mailan, Iker Vicentek ez zuen areriorik izan eta hirugarrenez irabazi zuen Urrezko Aizkolaria Txapelketa, Mikel Larrañagaren eta Hodei Ezpeletaren aurretik.

## Mitxelena, oso ongi

Banakako 18 urtez azpiko finalean Oier Mitxelena altsasuarrak eta Unai Etxeberria "Osinalde"-k lehia oso estua izan zuten, bukaerara arte erabaki ez zena. Osinaldek jantzi zuen txapela (8:36), aizkorakada gutxi batzuen aldeari esker. 14 segundo gehiagoko behar izan zituen final ona jokatu zuen Mitxelenak (8:50).

## Lehengusuen arteko dema

Banakako 23 urtez azpiko finala Aritz Oiarbide eta Jon Erdozia



Jon Erdozia, lanak bukatuta, atzean Aritz Oiarbide lehengusua duela. ARNAITZ RUBIO

lehengusu etxarriarrek jokatu zuten. Jon Erdoziak hasieratik hartu zuen aurrea, eta txapela lasaitasunez jantzi zuen (8:00), lehengusuari tarte handia ateraz (9:46). Gustura ospatu zuten txapeldun eta txapeldunorde izana.

## Poztasuna

"Oso pozik nago txapela lortu izanagatik. Hasieran uste nuen egur txarra zela, baina berehala konturatu nintzen ez zela horrela, eta lasai aritu nintzen. Nahiko ongi sentitu nintzen hasiera-

tik. Lehendabiziko enborrean banekien nahiko ongi egin ahal nuela, eta hor lehendabiziko segundoak ateratzea lortu nuen. Gero, lasaitasun horrekin, lan luzea ongi joan zen, eta txapela lortu nuen" azaldu du Erdoziak.

## Datorrena

Uda hastear dago, eta bestelako txapelketak dituzte aurretik Sakanako aizkolariek. "Euskadiko Hirugarren Mailako Txapelketako kanporaketan ariko gara, eta baita Nafarroako Bigarren Mailakoan ere. Uztailen iparraldeko bikote batekin erronka bat jokatu dugu Baionan, eta abuztuan Ramon Latasaren Oroimenezko Txapelketan parte hartuko dugu, Sunbillan. Horretaz gain, ateratzen diren txapelketa guztietan aritzeko prest gaude" gaineratu du 23 urtez azpiko banakako txapeldunak.



Oier Mitxelena, finalean. ARNAITZ RUBIO



Olatz Azazeta, ezkerrean. MITXARROKO BIRA

## Olatz Azazetaren asteburuko bi podiumak

**MENDIA / TRIATLOIA** Mitxarro Biran bigarren izan zen, eta Beriaingo Taldekako Erlojupekoan txapelduna

## M.B.G. ALTSASU

Olatz Azazeta Pelaezek asteburu kirolzale ederra bizi izan du, eta bi podiumera igo zen. Larunbatean, Araiako IX. Mitxarroko Bira mendi lasterketan parte hartu zuen, bere ibilbidean Zalkorta eta Aratz mendiak jaso zituen proba ederrean (27,5 km, 1.775 m desnibel +). Izai Larreak (2:55:30) eta Irune Velez de Mendizabalek (3:19:56) irabazitako proban, Azazeta bigarren emakumea izan zen (3:23:33), lasterketa bikaina egin eta gero. Dantzaleku Sakanako bere taldekide Ander Iraizoz (3:09:43) eta Juan Larrea (3:09:43) zortzigarren eta bederatzigarren sailkatu ziren, eta jubenil mailako lasterketan Jorge Diaz bigarren izan zen (2:04:02).

## Beriaingo Taldekako Triatloia

Hurrengo egunean, igandea, V. Beriaingo Taldekako Triatloi Erlojupekoa jokatu zen, Carlos Miranda Oroimenezkoa, eta bertan lehiatu zen altsasuarrak. La Moreako baltsan 750m igeri egin, 20 km-ko bizikleta tarte osatu, eta 5 km-ko korrikaldia egin behar izan zuten triatletek. Emakumezkoen open mailan azkarrenak Olatz Azazetak, Naia Lopezek, Uxue Seminariok eta Laura Apariciok osatutako Leonas taldekoak izan ziren (1:32:22).

# Sanchez-Mauduit txapeldun, eta Salaberriatarrak txapeldunorde

**PILOTA** Altsasuk NKJen Binakako Pilota Txapelketako hirugarren faseko finalak hartuko ditu larunbatean

Denboraldia bukatzeaz dela, pilota txapelketak azken txanpan daude. Larunbatean Nafarroako Kirol Jokoetako (NKJ) Eskuz Binakako Txapelketako azken faseko finalak jokatu ziren Labriten. Benjaminen mailan Arbizuko Aldabideko Xuban Sanchezek eta Peru Mauduit txapeldunak izan ziren, Ultzamako Asuari eta Otegi 2-1 irabazita (10-3, 3-10 eta 1-5). Kadeteen mailako finalean Larraun klubeko Nazabalek eta Telletxeak 22-8 hartu zituzten mendean Irurtzun klubeko Salaberriatarrak.

## Sakandarrak Altsasun

Larunbatean, ekainak 15, NKJeko Binakako hirugarren faseko finalak jokatu dira 10:00etatik aurrera. Jokatu diren finalen artean bi biko sakandar lehiatuko dira. Kimuen bigarren mailako finalean Azkonak eta Arguellesek (Altsasuko Pilota-jauku) Berdud eta Lorea (Zugarralde) izango dituzte aurkari, eta kadeteen bigarren mailan, Zubiriak eta Olarrak (Aldabide) Parienteren eta Urrutiaren kontra (Zugarralde) jokatu dute, lehiatuak espero diren finaletan.



Eskuz Binakako azken fasea, Sanchez-Mauduit eta Salaberriatarrak tartean. FEDERAZIOA

## Aldabide, Herrien Artekoan

Herrien Arteko Pilota Txapelketako haurren mailan Irurtzun eta Aldabide dira lehiatu diren zortzirenetan txapelketatik kanporatu zen, Barañainen galdu

eta gero. Aldabidek, aldiz, aurrera egin zuen, Agoitz mendean hartuta. Larunbatean, ekainak 15, Aldabidek Baztan kluba izango du aurkari final laurdenetan. Jaialdia 10:30ean hasiko da, Elizondon.





Ibilbide luzeko txapelduna, Txantrea Traileko Aitor Blanco, irribartsu eta fresko iritsi zen helmugara.

# Lakuntza-Aralar: ibilbide berdina, baina lasterketa ikusgarriagoa

**MENDI LASTERKETAK** Aitor Blancok eta Ainara Alcuazek irabazi zuten XIX. Lakuntza-Aralar proba luzea, eta motzean Owen Davies eta Maite Etxezarreta gailendu ziren. Nafarroako Kluben arteko txapelketan, A4xKM eta Hiru Herri izan ziren txapeldunak

**Maidar Betelu Ganboa** LAKUNTZA Aterti jokatu zen Zabalarrek antolatutako XIX. Lakuntza-Aralar lasterketa. Hasteko, 30 mendizale abiatu ziren mendi martxa egitera, eta segidan proba luzean aritu ziren 138 korrikalariak eta motzeko 160ak atera ziren. Guztira, 330 kirolarik hartu zuten parte. Bi ibilbideek batera jo zuten Guardetxeraino (1.035 m). Luzekoek Unagako putzura segi zuten (1.185 m), Irumugarrietaraino (1.431 m.). Buelta hartuta, Desao (1.229 m) eta Arangundik Lakuntzara jaitsi ziren (26 km). Ibilbide Motzekoek Guardetxetik Aubigañara (1.099 m) heldu ziren, Arangundik Lakuntzara heltzeko (13,3 km).

## Mustutze ezin hobea

Ibilbide Luzea Txantrea Traileko Aitor Blanco 28 urteko gazteak irabazi zuen (2:05:39), Arronizko

Jesus Maria Alegriari minutu pasa ateraz (2:06:47). Pozez zoratzen zegoen Blancok azaldu zuenez, "talde indartsua atera gara. Xabier Zarranz tiraka hasi da, eta Irumugarrietara biok iritsi gara batera. Jaitsierak gustuko ditut, eta hor aprobe txatu dut. Lohia zegoen, eta izugarri gozatu dut". Lehengo aldiz aritu zen Lakuntzako proban, eta "oso ederra" iruditu zitzaion. Ander Unzurrunzaga etxarriarra izan zen lehen sakandarra (2:36:46), eta Asier Gartzandia, lehen lakuntzarra (3:06:04).

**BI PROBETAKO IRABAZLEEK SEKULAKO MAILA ERAKUTSI ZUTEN. "OSO GUSTURA" ARITU ZIREN**

Emakumezkoetan, Ainara Alcuaz (Hiru Herri) burlatarra gailendu zen (2:36:46). 10 minutu atera zizkion bere taldekide Irene Artazkoz iruindarrari (2:46:12). Alcuaz lehenengo aldiz aritu zen Lakuntzan, eta primerako mustutzea egin zuen. "Lohia gustuko dut, eta gustura aritu naiz. Ibilbidea, ikusgarria". Artazkozekin batera iritsi zen Irumugarrietaraino, baina jaitsieran bakarrik egin zuen aurrera. Ez zen sakandarrak aritu.

**Sakandar gehienak, laburrean** Korrikalari sakandar gehienak ibilbide motzean lehiatu ziren. Atarrabiako Owen Davies izan zen txapelduna (1:03:45), Idiazabalgo Julen Balerdiren (1:04:43) aurretik. Lehen sakandarra Ivan Sobredo "Triki" altsasuarra izan zen, helmugan seigarren (1:07:44). Lakuntzarren artean Koldo Raz-

kin izan zen azkarrena, 100. (1:37:24). Txalo gehienak, ordea, Ramon Romero (1:43:01), Eneko Razkin (1:43:02) eta Xabat Arraiza (1:43:03) gazteek jaso zituzten.

Emakumezkoetan, Maite Etxezarreta azpeitiarra ikusgarri aritu zen (1:10:22). Bigarren Noaingo Marija Brecko izan zen, ezin sinisturik (1:21:55). Lehen sakandarra Erkuden San Martin etxarriarra izan zen (1:33:05), eta lehen kadetea haren seme Jon Orella, helmugan 35. (1:22:00).

Luzea Nafarroako Kluben Arteko Txapelketa izan zen. Gizonetzkoetan A4xKM izan zen txapelduna, Hiru Herriren eta Txantrea Trailen aurretik, eta emakumezkoetan Hiru Herri, lehiatu zen bakarra.

## Etiketa Berdea, praktikan

Lakuntza-Aralar Etiketa Berdea lasterketa etiko gisa mustu zen. Ingurumena babestuz gain, korrikalarien "mendiko betiko balioak" sustatu zituen. Praktikan jarri zen, mendizale batek haustura izan baitzuen Irumugarrietan, eta alboko korrikalariak lagundu baitzioten, antolakuntzakoak eta erreskate taldekoak hurbildu arte.

## Sakandarrak

### Luzea (26 km)

• Gizonak	
1. Aitor Blanco	2:05:39
34. Ander Unzurrunzaga	2:36:46
48. Ioseba Iza	2:42:51
67. Asier Gartzandia	3:06:04
71. David Oroz	3:11:45
77. Ricardo Palacios	3:17:44
90. Sergio Sanca	3:38:23

### • Emakumeak

1. Ainara Alcuaz	2:36:46
------------------	---------

### Motza (13,3 km)

• Gizonak	
1. Owen Davies	1:03:45
6. Iban Sobredo	1:07:44
7. Israel Arbizu	1:09:54
12. Asier Estarriaga	1:11:54
16. Aimar Araña	1:14:44
19. Felix Benjumea	1:16:39
27. Jose J. Beregaña	1:18:22
28. Asier Leiza	1:18:30
29. Fran Araña	1:19:20
30. Santi Galarza	1:20:08
32. Roberto Ziordia	1:21:26
35. Jon Orella	1:22:00
41. Inhar Olabide	1:23:16
42. Ekhi Olabide	1:23:16
46. Patxi Arakama	1:25:13
73. Jorge Vitoria	1:30:35
74. Roberto Zornoza	1:30:52
100. Koldo Razkin	1:37:24
101. Aritz Irigoien	1:37:37
114. Ramon Romero	1:43:01
115. Eneko Razkin	1:43:02
116. Xabat Arraiza	1:43:03

### • Emakumeak

8. Maite Etxezarreta	1:10:22
82. Erkuden San Martin	1:33:05
102. Maitane Txueka	1:37:57



Ainara Alcuaz txapelduna eta lehen sakandarra, Ander Unzurrunzaga, batera iritsi ziren.



Korrikalari lakuntzarrek podiumera igo ziren.



Etxarri Aranatz, igoera faseko Beriainen kontrako joaneko partidari. UTZITAKOIA

## Federazioa: berandu, oker eta polemika tarteko

**FUTBOLA** Nafarroako Futbol Federazioak igoera fasean lehiatzeko aukerarik gabe utzi du Etxarri Aranatz

**M.B.G. ETXARRI ARANATZ**

Etxarri eta Beriain taldeek maiztaren 25ean Erregionaleko igoera faseko itzulera partida jokatzeko ari zirela izandako gertakarien aurrean Nafarroako Futbol Federazioak erabakia hartu du. Bi aste beranduago iritsi da, eta ez du inor asebetu.

Itzulerako partidako lehen zatia despeditzerakoan zalaparta sortu zen. Etxarri Aranatz taldeak bere jokalaririk bati Beriaingo zelaiaren egindako irain arrazistak salatu zituen. Bere jokalaririk babesa emanez, bigarren zatian zelaira ez ateratzea erabaki zuten, eta hala jakinarazi zioten arbitroari. Hark, ordea, ez zuen aktan jaso. Etxarri Aranatzek gertatutakoak Foruzaingoan salatu, eta Nafarroako Futbol Federazioari arrazakeriaren kontrako protokoloa zein den galdetu zion, "Beriainen ez zutelako inolako protokolorik martxan jarri". Beriainek irain arrazisten salaketa ukatu zuen.

Beriainek 2-0 irabazten zuen, eta federazioak emaitza hori jaso zuen. Etxarri, nahiz eta galdu, igoera fasean lehiatzen jarraitzea zegoen, baina talde sakandarra ez zen partidetarara deituta izan.

### Erantzuna

Etxarri Aranatz Kirol Elkarteak ekainaren 6an jaso zuen Nafarroako Futbol Federazioaren erantzuna. "Federazioak erabaki du partida galdutzat ematea, eta, gainera, hurrengo kanporaketa lehiatzeko aukerarik gabe uztea. Erabaki hau gure klubaren

aurkako kolpea ez ezik, errespetu falta ere bada; bi aste zain egonarazi gaituzte, nahiz eta hasieratik erabakia hartuta izan" dio Etxarri erregional taldeko plantillak kaleratutako oharra.

"Gure jokalariek Beriainen jaso zituen irain arrazisten ebazpenari buruz Nafarroako Futbol Federazioak hartu duen erabakiaren aurrean gure frustrazio, etsipen eta erabateko desadostasuna" adierazi du plantillak. Halaber, "integrazioaren, errespetuaren, kiroltasunaren eta joko garbiaren alde egiten duen federazio batean, erabaki horrek guztiz kontrakoa adierazten duela" salatu dute. "Beriainen irain xenofoboak jasotzeaz gain, futbol zelaiaren irabazi duguna ere kendu digute, bigarren kanporaketa jokatzeko aukera". Gainera, federazioko inork ez duela "ez biktimarekin ez klubarekin hitz egiteko duintasunik izan" kexatu dira. "Klub guztiak ez gara berdinak".

Bukatzean, argi utzi nahi izan dute "bidegabekeria horren aurrean ez garela besoak gurutzatuta geratuko", eta "behar diren baliabide guztiak" erabiliko dituztela "justizia egin arte". Etxarri Aranatzek Altsasu eta Lagun Artea klubaren babesa jaso du.

**"BEHAR DIREN BALIABIDE GUZTIAK ERABILIKO DITUGU JUSTIZIA EGIN ARTE"**  
ETXARRI ERREGIONALA



Udane Vergara asteburuan despedituko du denboraldia. Atsedean hartzeko beharra duela aitortu du.

# "Kopa lortzeak datorrenerako motibazio gehiago eman dit"

**UDANE VERGARA MUNDIÑANO** KIROL SPORT TALDEKO ENTRENATZAILEA

**FUTBOLA** Udane Vergara entrenatzaile altsasuarraren taldeak Emakumezkoen Futbol 8 kopa irabazi du, liga ikusgarria egin ondoren. Orkoien pozez gainezka daude

**Maidar Betelu Ganboa** ALTSASU

Larunbatean Udane Vergara Mundiñano altsasuarrak entrenatzen duen Orkoien Kirol Sport A taldeak Emakumezkoen Futbol 8ko kopa irabazi zuen, Mutilbera A mendean hartuta. Lehendabiziko titulua lortu zuen taldeak, merezitako saria.

**Futbolari eta pilotari zinen, eta orain futbol entrenatzaile zaitugu. Zer gertatu da?**

Hankako behatzetan arazo bat nuen, lesio bat. Ebakuntza egin da ere, beti bihurrituak nituen,

belaunak kargatzen zitzaizkidan... eta azkenean futbola eta pilota utzi behar nituela esan zidaten. Kolpe handia izan zen, eta buelta ematea kostatu zitzaidan. Tarte horretan nire lagun batek Oberenako nesken futbol talde bat entrenatzen zuen, baina utzi behar zuela, eta bertan hastea proposatu zidan. Kirolean jarraitu nahi nuen, eta futbola bazen, askoz hobeki. Animatu nintzen, eta denboraldi ona egin nuen Oberenako nesken futbol 8 taldean. Kirol Sportetik deitu zida-

ten, eurekin fitxatzeko, eta hara joan nintzen. Aurten Kirol Sportekin hirugarren denboraldia egin dut.

**Zure ikasketek kirolarekin zerikusia dute?**

Hasieran kirolari buruzko erdi mailako gradu bat egin nuen Uharte Iruñean, segidan gizarte integratzioko goi maila egin nuen, eta orain haur hezkuntzarekin lotutako goi maila egiten ari naiz. Batzuetan zaila egiten zait guztia uztartzea, futbolarik denbora asko eskatzen duelako. Nesken infan-

til-kimuen mailan astero bi egun entrenatzen dugu eta astebururo partida dugu, baina entrenatzaileon jarduna ez da hor bukatzen. Koordinatzailearekin bildu beharra dugu, edo analistarekin, hurrengo partida prestatu eta azken partidako datuak errepasatzeko, lesionatutako jokalariekin fisiora goaz, eta tarteka psikologoarekin landu beharrekoak prestatzen ditugu... Baliabide asko ditugu, astean zehar landu beharrekoak. Astelehena ezezik, astean zehar egunero nago zelaian.

#### Zer behar du entrenatzaile on batek?

Entrenatzaile izateko aurretik futbolaria izatea oso garrantzitsua dela iruditzen zait, futbola barrutik bizi izan horrek jokalaria eta taldea ulertzen asko laguntzen dutelako; euren paperean jartzen zara. Horretaz gain, taldea oso ondo ezagutu behar duzu, eta jokalar berriak taldean sartu. Orkoien baliabide eta aukera pila bat ditugu, eta lantalde sare on bat izateak asko laguntzen digu entrenatzaileoi; lana pila bat errazten digu. Analistak gure partida aztertzen du, eta datuetan oinarrituta zer hobetu aipatzen digu. Adibidez, kopako finala prestatzeko baloia atzetik atera nahi nuen, eta hori nola landu aztertu nuen analistarekin.

#### Kirolen erdi graduaren entrenatzaileen lana landu al zutenen?

Ez. Entrenatzaile izaten nik nire kabuz ikasi dut, inguruko laguntzarekin. Txikitatik futbolaren inguruan ibili izan naiz beti, lehengusuarekin, osabarekin... Argi nuen futbolarekin zerikusia duen zerbait egin nahi nuela.

#### Entrenatzaileak berezko sena du?

**Edo entrenatzaile izaten ikasten da?** Barruan zerbait izan behar duzu, sen hori. Ikasi daiteke, baina nik beti esan izan dut titulazio gehiago izateak ez zaituela entrenatzaile hobea egiten.

#### Zer da zailena zure lanean?

Gurasoekin dugun tratua kudeatzea. Nik jokoari begira erabaki batzuk hartu behar ditut, baina badaude guraso batzuk galdezka etortzen zaizkidala, ea zergatik honek besteak baino gehiago jokatzen duen... eta halakoak. Zelaian eta taldean gertatzen dena bertan geratzeko nahiko nuke, harmaila eta gurasoak alde batera utzita. COVID garaian, ateak itxita, gusturago entrenatzen zela diote lankideek.

#### Gurasoena, horrenbestera al da?

Alaba jokatzen egotea eta gurasoak esatea: "bota baloia", eta halakoak,

askotan nahi gabe ateratzen zaie gurasoei, baina horretarako gauden entrenatzaileak, joko gida-tzeko. Jokalariek etxeko presio hori jasotzen dute, eta askotan eragina izaten du.

#### Norbaiti esan behar izan al diozu isiltzeko, zure lanean eragiten ari dela?

Bai. Joan zen denboraldiko kopako finalerdian guk partida modu batean genuen prestatuta, eta aita batek bere alabari beste gauza bat egiteko esan zion; kasu egiteagatik alabak hutsa egin zuen, eta gola sartu ziguten. Gol horrengatik finalerdia galdu genuen, eta beti gogoratuko dut, ez dut ahazteko. Ligan halako jarre-rak tarteka ikusten ziren, baina kopan gurasoek ez dute apenas ezer esan. Izan ere, halako jarren lanketa egin dugu psikologoarekin. Jokalaria berean zentratuta egon dira, eta aldaketa ikusi da.

#### Kirol Sportek baliabide asko ditu, baina Sakanako taldeak bestelakoak dira. Hemen izena ematen duen oro sartzan da taldean. Zuek jokalaria probatzen dituzue, edo fitxatu.

Ni askotan egoten naiz Dantzalekun, eta aldaketa handia ikusten dut, zentzu guztietan. Orkoienoa nolabait esateko profesionalagoa da.

#### Denboraldi ona egin duzue. Emakumezkoen Futbol 8 infantil-kimuen mailan bigarrenak izan zarete, Tudelanoren atzetik.

Liga oso ona egin dugu. Hasierako helburua hori zen, goian egotea, eta lan eta esfortzu handia egin genuen. Tudelanoren kontrako bi partidak galdu genituen, hor joan zitzaigun liga. Orduan txip aldaketa egitea erabaki genuen: liga alde batera utzi, eta kopan zentratu ginen. Kopa partidaka jokatzen da, eta partida bakoitzean aurrera egiteko edo bidean geratzeko %50eko aukera dago. Eta ongi atera zaigu. **Mutilbera A taldearen kontra jokatzen kopako finala, larunbatean, Tuteran, eta 3-1 irabazi zenuen.**

Partida ona izan zen. Taldea oso urduri zegoen hasieran. Astean zehar psikologoarekin landu genuen, baina, azkenean, final batean presioa nabaritzen da. Alde batetik argi genuen futbolak zerbait zor zigula, iaz kopako finalerdietan erori ginelako eta aurten ligan bigarren izan ginelako. Horrenbesteko esfortzua egin eta gero, behingoz garaipe-na merezi genuen; tokatzen zi-



Udane Vergara, beltzez, bere taldeko partida zuzentzen.



Infantil-kimuen Kirol Sport A taldea, Emakumezkoen Futbol 8 kopako txapelduna.



Udane Vergara taldeko sakandarrekin: Maddi Martinez, Olatz Pain eta Goretti Artola.

## "HIRU SAKANDAR DITUT TALDEAN, ETA DATORRENEAN LAU IZANGO DIRA; JOKALARI ONAK DIRA"

## "DATORRENERAKO TALDE SENDOA OSATZEN ARI GARA, ONENEGIN LEHIATUKO GARELAKO"

tzaitzun. Hala ere, ez zen erraza izan, 6. minutuan gola sartu zigitelako. Buelta ematea kostatu zitzaigun, baina 10. minutuan bana berdindu genuen, eta 17. minutuan bigarrena sartuta 2-1 aurreratu ginen. Serio jarri, eta gure joko egiten hasi ginen. Hirugarren gola, azkena, 67. minutuan sartu genuen.

#### Nolako poza, ezta?

Izugarria. Lehen aldia da tituluren bat irabazten dugula. Beti hor egon gara, goian, baina ez genuen irabazten, eta, azkenean, lortu dugu. Gustura ospatu genuen. Bihar, larunbata, azkeneko

tornea jokatuko dugu etxean, Orkoien, eta ondoren bazkaria egingo dugu.

#### Datorren denboraldian Kirol Sporten jarraituko al duzu?

Deiak egon dira, baina momentuz denboraldi bat gehiago jarraituko dut Kirol Sporten. Gero, ikusiko dugu. Hurrengo denboraldian infantil-kadete mailara igoko gara talde osoa. Futbol 11n jokatuko dugu, eta aurtengo taldeki-deez gain, fitxaketa berriak egingo ditugu. Etxarri-Aranazko Naroa Razkin batuko zaigu taldera, eta biharko torneoan ere jokatuko du. Aurretik beste hiru etxarriar ditut taldean: Olatz Pain atezain altsasuarra, eta Goretti Artola eta Maddi Martinez jokalar berriak. Bestalde, kadete-jubeniletako taldean Helena Andueza bakaikuarra egongo da, eta maila autonomikoan Maddi Mariñelarena etxarriarra.

#### Sakanako futbolari onak ditugu?

Baietz esango nuke. Hemengo jokalar ia gehienak ezagutzen ditut. Azken aldi etxarriarrak gehiago nabarmentzen ari dira, mutilekin batera jokatzen ibili direnak. Ez dute beldurrik, bi-ziagoak dira.

#### Emakumezkoen futbolak urte oso gutxitan sekulako booma izan du.


Izugarria. Ligan eta kopan goian dauden taldeen partidetera beste taldeetako ikuskatzaileak eta selekzio arduradunak hurbiltzen dira. Nire taldeko lauzpabost jokalar astero Taxoarerera doaz, teknifikazio saioetara.

#### Kopa zure lehen titulua izan da, teknikari gisa.

Kostatu da, baina merezi izan du. Oso pozik nago. Kopa irabaztea datorren denboraldiari begira motibazio bat gehiago da. Gure mailan bi kategoria egin behar dituzte, lehiakorra eta ez lehiakorra. Guk lehiakorrean jokatuko dugu, eta talde sendo bat osatu beharra dugu, talde onenekin jokatuko dugulako. Jada hementz jokalar lotuta ditugu.

#### Futboleko jarraitu nahi duzu, hori argi dago.

Nire bizitza futbola da, eta futboleko zentratu nahi dut, beste ikasketak alde batera utzi gabe. Oinarritzko entrenatzaile titulua dut, eta orain hurreneko mailakoa aterako dut. Futbol 11ko maila berriaren eronkarekin pozik nago. Ni entrenatzaile nagusia izango naiz, baina laguntzailea eta atezainen entrenatzailea izango ditut alboan. Ilusio handia dugu.



Nahia Imaz, podiumean. NAF. FEDERAZIOA

### TXIRRINDULARITZA Nahia Imaz, Nafarroako txapelduna

Ekainaren 9an eliteen eta 23 urtez azpikoen Lizarrako Udala Emakumeen VI. Saria jokatu zen, aldi berean Nafarroako Txapelketa zena (101,9 km). Lasterketa gorabeheratsua Maria Garauk (Cantabria-Rio Miera) irabazi zuen, esprintean. Nahia Imaz Perez altsasuarra (Team Zatika Bike) hamaikagarren sailkatu zen, lehen nafarra eta Nafarroako txapelduna.



Ane Berastegi, trofeoa jasotzen. BERATXA

### TXIRRINDULARITZA Ane Berastegi, Kopako bigarren podiuma

Ekainaren 8an VI. Emakumeen Lizarrako Udala Saria jokatu zen, Espainiako Koparako baliagarria. Juniorren mailan (77,7 km) Paula Ostiz (Baque) ikusgarri aritu zen beste behin, proba irabaziz (2:07:12). Ane Berastegi arbizuarra (Beratxa) hirugarren sailkatu zen. Berastegik Espainiako Kopan bere bigarren podiuma lortu zuen, aurretik Pontevedran lortutakoaren atzetik.



Aurten Iortia plaza izan zen Altsasu BTT Zeharkaldiaren irteera eta helmuga, Gure Etxean hautestontziak zeudelako.

## Bikerren gozamina Altsasu BTT Zeharkaldian

**BTT** 525 mendi txirrindularik hartu zuten parte Barranka Txirrindulari Taldeak antolatutako proba ez lehiakorrean. Gehienek ibilbide luzea egin zuten (55 km) eta Haritzen Ibilbidea, Bernoa galtzada eta Olaztiko Auntzetxea lotu zituzten

### Maidar Betelu Ganboa ALTSASU

Bezperako ekaitzak bukatuta, zerua grisa eta fresko zegoela baina ateri abiatu zen 27. Altsasu BTT Zeharkaldia, Barranka Txirrindulari Taldeak mimo handiz prestatu zuen mendi txirrindularitza proba ez lehiakorra. Guztira 525 biker abiatu ziren Iortia plazatik, Sakanako paraje ederrez gozatzeko prest. Ibilbidearen eremu batzuetan nahikoa lohia zegoen, baina ez zen aparteko arazorik izan eta goiz bikainaz gozatzeko aukera izan zuten bikerrek.

Ibilbidea gozamen hutsa izan zen. Lehenik eta behin Urdiain, Iturmendi eta Bakaiku pasa zituzten, behe aldeko pista azka-



Ibilbidearen lehen tartean, bereziki, lohia zegoen. Gero, ez horrenbeste. N. MAZKIARAN

## Iker Palacios, behetik gora Ibardingo Igoeran

**AUTOMOBILISMOA** Sakana Motorsporteko pilotuak arazoak izan zituen, baina buelta eman zion

Larunbatean VIII. Ibardin Igoera jokatu zen Beran, Nafarroako Mendi Igoeren Txapelketarako hirugarren proba puntuagarria, Ioar eta Izpegi igoeren atzetik. 58 talde lehiatu ziren, tartean Sakana Motorsporteko Iker Pa-

lacios lakuntzarra (BRC B52). Palaciosek entrenamenduetan arazoak izan zituen, baina zorionez buelta eman, eta bederatzi-garren sailkatu zen (3:19.052), 10. klasean bigarren. Arkaitz Ordokik (NP-03) irabazi zuen (2:58.521).



Iker Palacios, Ibardingo Igoeran. SAKANA MOTORSPORT

rretatik. Etxarri Aranatzen Haritz Zaharren Ibilbide zoragarrian sartu ziren, eta Etxarri eta Bakaiku arteko galtzada hartuta, Bernoako galtzadaren azpira iritsi ziren. Ibilbide ertaina aukeratu zutenak (43 km, 630 m desnibela) Urdiango igerilekuetaraino jarraitu zuten, han baitzegoen hornidura gune nagusia, baina ibilbide luzea hautatu zutenek (55 km, 1.180 m desnibela) Bernoako galtzada igo zuten, Intsusbururaino, handik jaitsi eta hornidura gunera jarraitzeko. Ibilbideak San Pedro, Sorozarreta, Orobe eta Ameztian jarraitu zuen. Hain zuzen ere, Ameztian zegoen bigarren alternatiba: ibilbide luzekoak Olaztiko Auntzetxeraino igo ziren, eta ertainekoek Altsasura jo zuten, Iortia plazako helmugara.

"Biker gehienek ibilbide luzean eman zuten izena, eta gero uanean hartu zuten Intsusburura edo Auntzetxera igotzeko erabakia. Bernoara gehienak igo ziren; Auntzetxera, ez horrenbeste" azaldu zuen Altsasu BTTko arduradun Jose Antonio Imazek.

### Oso eskertuta

Antolakuntzarekin batera 80 boluntario inguru aritu ziren lanean, eta Barranka taldetik eskerrik beroenak eman zizkieten, boluntarioei eta baita proba aurrera ateratzeko beharrezkoak diren babesleei ere. Halaber, balorazio ona egin zuten, ez zelako aparteko arazorik egon. "Bezperan ekaitza handiak izan ziren, eta euri asko. Bakaiku eta Etxarri Aranatzen lohi handiko gu-neak zeuden eta geldiago ibili behar izan zen, baina gero tropela ongi ibili da. Oso kontentu gaude ez delako aparteko arazorik egon eta txirrindulariek gozatu dutelako".



Etxarri Aranazko Abesbatza Txikia Irati Morentin eta Osane Orella zuzendariekin.

# Kantu bat eta askoz gehiago

Hamasei haur eta gaztek osatzen dute gaur egun Etxarri Aranazko Abesbatza Txikia, baina gehiago izatea nahi dute. Abesbatzan parte hartzea "oso dibertigarria" dela esan dute kideek. Ekainaren 22an ikasturte amaierako kontzertua emanen dute

**Erkuden Ruiz Barroso** ETXARRI A. Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiak kaleratu duen kartelak dioen bezala "Zure ahotsa behar dugu". Hori, hain zuzen, esan dute abesbatza txikian parte hartzen duten haur eta gazte-koek: haur gehiagoren ahotsa behar dugu. Etxarri Aranazko Elizako areto batean entseatzen dute ordu bat asteen, ostiraletan, eta momentu honetan ekainaren 22an, larunbata, emanen duten ikasturte amaierako kontzertua prestatzen ari dira. Ikasturtean "haien kabuz" kontzertuak ematen dituzte, baita beste talde batzuekin ere, hain zuzen Etxarri Aranazko Abesbatza "handiarekin". Beste abesbatza txikiarekin ere kontzertua eman ohi dituzte.

Abesbatza txikiaren helburuak abesten ikastea eta ongi pasatzea dela esan dute Irati Morentin

eta Osane Orella koro txikiko zuzendariek. Abesbatzaren mundura hurbiltzeko modu bat ere badela gaineratu dute, "aldi berean, Etxarri Aranazko etorkizuna dira, eta honetara salto egiteko prestatzen zaie". Momentu honetan abesbatza txikia Etxarri Aranazko eta Arbizuko hamasei neska-mutilek osatzen dute: Nahia, Intza, Enara, Julene, Adriana, Ainhoa, Nora, Sarai, Aroa, Ixone, Alain, Haize, Enara, June, Lur eta Fatima. 6 eta 15 urte bitarteko haur eta gaztekoak dira.

Beteranoenak Julene eta Adriana dira, gaur egun 11 eta 13 urte dituzte, eta bost urterekin hasi ziren abesbatzan. Aurreko urtean Alai eta Intza, Ixone, Haize eta Enara arbizuarrak hasi ziren, sei eta bederatzi urte artekoak. "Pandemiagatik bi edo hiru urteko geldialdia izan genuen, eta

horregatik batzuk pixkatxo bat berandu hasi dira". Sei urterekin dagoeneko eman dezakete izena abesbatza txikian.

## Kantatzea

"Kantatzeagatik" hasi ziren abesbatza txikiko hainbat kide koroan. Kantatzea gustatzen zaie, eta abesbatzak horretarako aukera ematen die. Bakarrik edo abesbatzarekin abestea nahiago duten galdetuta, abestiaren arabera erantzun dute haur eta gazteek. Abesbatzatik kanpo "etxean" eta "familiaren aurrean" abesteko aukera dutela azaldu

**KORO TXIKIAREN HELBURUAK, BESTEAK, ABESTEN IKASTEAREN ONGI PASATZEA DA**

dute abeslariak, eta solfeora joaten direnak eta kontzertuak ematen dituztenak ere badaude. Hala ere, azaldu dutenez, taldean "lotsa" gutxiago ematen die publikoaren aurrean abestea eta "artistikoagoa" da; "bestela oso laua eta aspergarria da". Abesbatzan dauden ahots desberdinei buruz ari dira: "Taldeen gehiago entzuten da eta oso polita gelditzen da talde bat abesti bat kantatzen ari denean eta beste talde bat beste gauza bat". Irakasleek esan dutenez, ahots desberdinak egitearena "kostatzen zaie" baina pixkanaka ikasten ari dira.

Abestea ez ezik, abesbatzan parte hartzeko arrazoi gehiago dituzte ere: "Lagunekin egotea". Koroan lagunak egin dituzte, eta beraiekin gustatzen zaiena egiten denbora pasatzeko aukera ematen die.

## Kontzertuak

Entseguetan Morentin eta Orella pianoan jartzen dira, koroaren aurrean, eta lehenengo gauza abestiaren letra pixkanaka irakasten joaten dira. Ondoren, beraiekin abesten dute eta abeslari gazteei egiteko esaten die. "Horrela, pixkanaka". Abesbatza "handiarekin" abesten dutenean, noizean behin beraiekin entseatzera joaten dira eta kontzertuak dituztenean "gehiago" entseatzen dutela esan dute irakasleek.

Entseguak "serioak" direla esan dute kideek, baina "dene-

tarik" egoten dela aitortu dute. Oso ongi pasatzen dutela argi dago: "Txorakeriak ere egiten ditugu, txisteak kontatu eta abar". Kanta artean ura edaten dute, "oso inportantea". Deskonektatzeko pausa izaten da ura edatearena. Zenbait abestirendako ere dantzak ikasten dituzte, nahiz eta ordu batean "askorako ez duela ematen" aitortu duten irakasleek.

Ekainaren 22an emanen duten ikasturte amaierako kontzertuko errepertorioan zortzi abesti egonen dira: *Kusi mama, Itsas azpiko mundua, Dos bichos, Akaijana, Arbolatik hostoa, Zeru urdina, Olatu bat eta Mantuxa*. "Eta *Kantu bat* oraindik ez dakigu, helduek esaten dutenaren arabera". Ekainaren 8an Nafarroako Abesbatzen Federazioaren Gogo bete kantuz zikloaren barruan Etxarri Aranazko Abesbatzak emandako kontzertuan koro txikiak ere parte hartu zuen eta egin zuten abestietako bat Bulego taldearen *Kantu bat* izan zen, gaztetxoei izugarri gustatu zitzaizena, eta 22an errepikatu nahi dute. Kontzertuan "oso txalotuak" izan zirela esan dute irakasleek.

"Oso dibertigarria da, eta oso ongi pasatzen dugu". Ikasturte berrirako ahots bila ari da Etxarri Aranazko abesbatza txikia. 6 eta 15 urte bitarteko haur eta gazteek eman dezakete izena [corotxikis@gmail.com](mailto:corotxikis@gmail.com) epostara mezua bidaliz.

# Lakuntzan izanen da azken Hatortxu Rock

2025eko garilaren 24tik 27ra izanen da, eta aurretik, 2024ko abenduaren 28an, Atarrabian 29. jaialdia egingen dute. Bi jaialdietarako balio duten 3.000 sarrera prestatu zituzten, eta dagoeneko agortu dira. Ekainaren 26an zerbait jakinaraziko dute

## LAKUNTZA

Hasieratik esan zuten Hatortxu Rock jaialdia hiltzeko sortzen zen jaialdi bat zela, eta hogei-tahamar edizioaren ondoren 2025eko udan izanen du azkena; Lakuntzan. 1999. urtean egin zuten estreinakoz preso, iheslari eta deportatuekin elkartzaren jaialdia, eta horietatik bi izan da Lakuntzan: 2009an eta 2017an. Bere bidea bukatu aurretik, 2024ko abenduaren 28an, Atarrabian, "forma klasikoa" azken jaialdia egingen dute eta udan, 2025eko garilatik 24tik 27ra, Lakuntzan, azken Hatortxu Rock izanen da. Hortaz, ekainaren 20an, ostegunean, Hatortxu Rockaren inguruan hitz egiteko batzarra deitu dute, 19:00etan, udaletxean.

Zita bikoitzarendako Hatortxu Rockek bonu bereziak jarri zituen ekainaren 11n. Eskaintza honek 3.000 bonu kaleratu zituzten, eta ekainaren 12an agortu zirela jakinarazi zuten. Hurrengo



Hatortxu Rock Lakuntzan. ARTXIBOA

zita ekainaren 26an izanen dela esan dute.

Antolakuntzatik jakinarazi dutenez, jaialdia bere amaierara heldu da, "baina sorrarazi zuten arrazoi guztiak ez dira desagertu". Euskal preso poli-

tiko, iheslari eta deportatuen egoerak euskal gizartearen inplikazioa oraindik "behar beharrezkoa" duela aipatu dute. "Jendartearen bizi ohituretan jasandako eraldaketa sakonek eta agertoki politiko berriek elkartzaren eta inplikazio forma berriak ezinbesteko egiten dituzte; Hatortxu badoa, baina tresna berri bide emateko".

"Herri honek aspalditik utzi du agerian maite dituenekiko babesa erarik berritzaileentan burutzeko gaitasuna, ez bairik gabe badakigu euskal preso politiko, iheslari eta deportatuetan azken etxera arte bide hori urratzeko borondatea eta gaitasuna bada goela". Bide horretan, jaialdiak "bere onena" joko dituela azken akordeak gaineratu dute antolakuntzatik. "Ospakizuna eta aldarrikapena uztartuz; bete behin musika erdigunean jarriz, elkartzarekin milaka pertsona elkartzuz".



## Sortutakoa erakutsiz

Koldo Arnanz Arte Tailerreko ikasleek ikasturtean zehar egindako margolanen erakusketa izan da ekainaren 1etik etzi arte, ekainak 16, igandea, lortia kultur gunean. Estilo eta teknika guztietako artelanak ikusteko aukera dago: oleoa, akuarela, arkatx margoak, pastelak... Lanen gaiak ere anitzak dira. Margolarien hiru txoko prestatu dituzte ere.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA RAZKIN

## Azokan bueltaka

Hilabete bat pasatu da aurtengo Bartzelonako azoka izan zenetik, eta nik orain dela bi irakurritan nituen jada bertan lortu nituen komikiak. Hiru egun izan ziren non irakurleek, idazleek, argitaletxeek, marrazkilariek, cosplayerrek, bildumazaleek eta hainbat frikik bat egin genuen, komikigintza eta haren osasuna ospatzeko. Azken esaldi hau, agian, ez da guztiz zuzena; beherago saiatuko naiz hau azaltzen.

Bartzelonako komiki azoka Espainiako azoka garrantzitsuenetarikoa da; baina, hala ere, anaiak, manga azokak, aurten ere protagonismo handia kendu dio. Aurten ere nabaria izan da, azokara gerturatu diren lagun kopurua ikusita, Bartzelonako Fira "betetzen" zuten postu zenbakiak ikusita eta orokorrean sumatzen zen giroa ikusita. Eta ni benetan pozik nago horregatik! Nire iritzian, "komiki industria aditu" bezala, bazen garaia hau gerta zedin.

Komiki azoka autorea zaintzen saiatzen da, fanzine

eta egile independenteei bozgorailu bat ematen saiatzen da, eta azokak antolatzen dituzten erakusketak oso interesgarriak dira. Komiki lehiaketen bidez, komiki egile berrien sorrera sustatzen dute. Manga azoka merkatu asiar erraldoi bat da, eta ez du komikigintzan horrenbesteko arreta jartzen.

Baina goian esan bezala, aurtengo azokan zerbait sumatu banuen, industriaren aldaketa handi bat izan zen. Super heroien komikien BOOMak eztanda egin du (hau ustekabea, lagunok). Nostalgia asko saltzen du, gaur egun zineman tendentzia den bezala.

Argitaletxeek interes gutxiko bildumak argitaratzen dituzte. Mangaren arloan batez ere, argitaletxeek saltzen dutena baino gehiago argitaratzen dute. "Maltzurak, hiltzera bideratuta daude", "Horrela bukatu zuen Reialak Whale dukearen gazteluan", "Baki"... Baina nork demontre irakurtzen ditu manga hauek!

Azken finean zenbat buru, hainbat aburu. Nik oso ongi pasatu nuen azokan eta Isaac Sanchezen sinadura bat lortu nuen. "Oso mundu zaila da hau (komikigintza)" esan zidan Isaac, baina, bestalde, "ilusio handiarekin" idatzi zuten sinaduran.



## Plaza, artisten topaleku

Etxarri Aranazko artisten lanen erakusketa kolektiboa izan zen igandean, plazan. Arte topaketa bikoitza zen, izan ere, Etxarri Aranazko Musika Eskolaren ikasleen ikasturte amaierako kontzertua ere bazen, eta erakustaldia musikarekin girotu zuten.

Besteak beste, Etxarri Aranazko pinturako ikasleen, estimulazio kognitiboko ikasleen, Jave Jaka, Reme Garziandiaren, Toma Mauleonen eta Sagra Mauleonen margolanak eta taila lanak ikusteko aukera izan zen.

**Erkuden Ruiz Barroso** ALTSASU

Ekhiñe eta Irati Lumbreras Fernandez de Arroyabe ahizpa altsasuarren etxean "beti egon da musika". Aita musikaria da eta amaren familian aitona eta birraitona musikariak izan direla azaldu dute. Ekhiñe Altsasuko Musika Eskolan musika ikasten hasi zen eta, ondoren, sei urteko kontserbatorioko ikasketak egin zituen; besteak beste, zeharkako txirula eta pianoa ikasi zuen, eta Iratik bi urtez kantu klaseak eman ditu. Gitarrarekin eta pianoarekin kontzertuak ematen dituzte, eta hurrengo ekainaren 23an, igandea, eginen duten bigarren Ganbarazelaia azokan izanen da. Azokaren filosofiarekin bat egiten dute: "Ilusio handia egiten digu bertan jotzeak azoka oso interesgarria delako; arropari eta etxeko materialei bigarren bizitza edo aukera hori ematea oso interesgarria da. Gu egongo gara, pintxopotea..."

**Nola sortu zen bikote musikari bezala aritzeko erabakia?**

Konfinamenduan hasi ginen sare sozialetara bideoak igotzen. Egia da konfinamenduaren aurretik ere bakoitzak bere kabuz egiten genituela gauzak: Instagramera jotzen edo abesten bideoak igotzen genituen. Konfinamendua iritsi zen eta hori atera zen gure artista sena hori eta esan genuen: "Gure kabuz ongi ateratzen bada, zergatik ez gara animatzen batera abesten?". Konturatu ginen egiten genuena polita zela, eta aurrera. Jendeari gustatzen zitzaion, erantzuna oso polita izan zen. **Lehenengo kontzertua nola sortu zen?**

Sare sozialetan esker jendeak ezagutzen gaitu eta azkenean aukerak sortzen dira. Lehenengo Altsasuko Peñak 2023ko festen aurretik egindako pankarta aurkezteko ekitaldian izan zen. Peñak gurekin harremanetan jarri ziren eta abestiren bat abesteko esan ziguten; azkenean, ordu bateko kontzertu bat eskaini genuen.

**Bideoak egiten jarraitzen duzue?**

Ez. Konfinamendu garaian denbora gehiegi genuen, baina orain elkartzeko zailagoa dugu eta kontzertuetarako entseatzeko elkartzen gara.

**Ahizpak izatean errazagoa edo zailagoa da?**

Errazagoa da. Arazoak sortzen dira, baina ongi ezagutzen gare-

# "Abesten dugunean lasaitzen gara; horretan gaude"

**IRATI ETA EKHIÑE LUMBRERAS MUSIKARIAK**

Musika barrutik daramate ahizpa altsasuarrek, eta sare sozialetan ezagutzera eman ondoren, zenbait kontzertu eman dituzte eta gehiago egiteko prest daude



Irati eta Ekhiñe bikote musikala. UTZITAKOIA

nez eta konfiantza dagoenez, badakigu nola konpondu.

**Zer nolako abestiak abesten dituzue?**

Batez ere rock euskalduna egiten dugu; guri gustatzen zaizkigun abestien bertsoak egiten ditugu. Izan daiteke runba bat, rock euskalduna edo ingelesezko abesti bat. Katalanarekin ere saiatu behar gara, ea zer moduz ateratzen den. Pixka bat denetarik. Errepertorioa osatzea kostatzen zaigu. Ez da erraza ordu bateko kontzertua emateko zer abesti edo errepertorio izango dugun erabakitzea, baina hasten gara gure talde gogokoena aukeratzen eta horrela ondoren horietatik zeintzuk diren gure abesti gogokoena. Horren arabera joaten gara prestatzen eta aukeratzen.

**Partiturak nola lortzen dituzue?**

Internetetik letrarekin eta akordeekin ateratzen ditugu, eta bestela entzuten ateratzen ditugu ere.

**Zure ahotsetara egokitu behar dituzue, ezta?**

Batzuetan abesti bat entzuten dugunean iruditzen zaigu tonua altuegi edo baxuegi dagoela, or-

**"BI AHOTS IZATEAK AUKERA EMATEN DIZU GEHIAGO HARMONIZATZEKO; OSOTASUN BAT DAGO"**

duan gure tonura egokitzen dugu; tonu bat jaitsi edo igo, eta hori hobe geratzen zaigu. Gure tonalitate hori bilatzen joan behar gara.

**Asko entseatzeko duzue?**

Gehiegi. Gero ahotsean arazoak izaten ditugu eta hitz egin gabe egon behar gara. Normalean kontzertu baten aurrean entseatzeko; kontzertuaren data hartu eta entseguak jartzen ditugu. Oso gustura egoten gara, espero gehiago egitea.

**Momentuz bertsoak egiten dituzue, zuen abestiak egitea pentsatu duzue?**

Pentsatu dugu, bai. Gitarrarekin segurtasuna bilatu nahi dugu, ikasketak gehiago egin, sortze prozesu horretan sartzeko. Baina ez dugu alde batera uzten abestiak egitea.

**Nola bizi duzue musika? Zer da musika zuendako?**

Lasaitasuna. Gure bizitza beti da alde batetik bestera korrika ibiltzea, gauza pila bat egiten eta ezin iritsi. Orduan, abesten dugunean edo musika egiten dugunean da: *Stop*. Hau egin behar dugu, hemen gaude, eta gainera disfrutatzen. Buruan ditugun gauza txar guztiak, kaxkax artean, nolabait alde batera uzten ditugu. Fisikoki eta mentalki deskantsatzeko momentu bat da.

**Baina urduritasuna dago ere.**

Bai, nerbio asko, gainera. Baina eramangarria, onak.

**Nolakoak dira zuen zuzenekoak?**

Kontzertuaren arabera. Egin ditugu hiru edo lau abestirekin edo ordu batekoak. Gitarrarekin abesten saiatzen gara, azkenean pianoa eramatea tramankulu handia delako; orduan, gitarrarekin egiten ditugu. Dena dela, ekainaren 23koa Iortia zabalgunean denez eta gure etxearan ondoan dagoenez, ez zaigu inporta pianoa jaistea eta gitarrarekin eta pianoarekin izango da.

**Zertan desberdintzen zarete?**

Esatea zaila da. Bi ahots izateak aukera ematen dizu gehiago harmonizatzeke eta abestiak osotasun bat bezala entzuten dira. Beteagoak bezala gelditzen dira. Bi ahots egotea oso garrantzitsua da; bigarren ahotsak nolabaiteko oinarri bat ematen du. Baita guretzeko segurtasuna ere.

**Etorkezue zer?**

Momentuz ez ditugu data gehiago itxita, badago hortik baten bat baina itxi gabe. Jarraituko dugu.



Mari Tere Goikoetxea Miranda, eskuinean, Lizarragako San Adrian ermitaren garbiketaz eta apainketaz arduratu da aurten.

## "Beti egoten da lana, baina erraz egitekoa da"

San Adrian ermitaren bueltan elkartuko dira lizerragatarrak larunbatean. Lizarragako Marzonekoa etxeko leihora atera eta mendi gainean dagoen ermita ikusten da, han goitti. Maritere Goikoetxea Miranda arduratu da ermita txukuntzeaz aurten

Alfredo Alvaro Igoa LIZARRAGA

### 1 Ermitarako aldapa horiek makina bat aldiz igota zaude?

Bai, gazte nintzela bai. Baina orain, dagoeneko... Lanerako. Bakoitzak geure gosariak eta bazkariak eraman, eta hola.

### 2 Nor arduratzen da ermitari kasu egiteaz?

Karrika bakoitzak ermita baten ardura du. Intxorretakoak San Donato, beheko karrikakoak San Martin, eta San Migel ermita ere badaukagu. Hemen, karrika honetan, San Adriango ermitaren ardura dugu. Etxez etxe txanda aldatzen dugu urtero. Aurten guri tokatu zaigu ermita zaintzea. Eta gure etxetik Anttoniona etxekoie pasako diegu.

### 3 Nola egiten duzue lekuko aldaketa?

Ermitako giltzak eta aldarean jartzeko oihalak pasatzen dizkiogu festa pasa eta ondorenean. Ermita bakoitzarekin gauza bera egiten da. Horrela ezagutu dugu eta horrela segitzen dugu. Baina ez dakit zenbat etxe garen, zeren batzuk ezin dutela, zahartu dira ere, eta...

ahal den bezala egiten dugu aldaketa.

### 4 Zer lan egiten dituzue?

Ermita garbitzea eta, gero, apaizari bazkaria edo gosaria ematea.

### 5 Biharko prest dago?

Bai, igorik gaude. Beti egoten da lana, baina erraz egitekoa da: erratza pasatu eta hautsa kendu. Aldamenean dagoen aterpea ere garbitu genuen, nahikoa itxuroso opatu genuen. Egunean aldarean oihal horiek eta loreren batzuk jartzen dira, eta besterik ez. Loreak baratzekoak dira. Aurten ez dakit, kalak badaude, gero azuzena batzuk. Bakoitzak nahi dituen loreak eramaten ditu. Lore batzuk eramatea ez da lan handia.

### 6 Laguntza izan duzu?

Bai. Gizona eta semea ere joan ziren. Garbitzeko ere ez dago horrelako lanik.

### 7 Ermitaren kanpoko aldean ere bada aldare bat, ezta?

Eguraldiak laguntzen badu meza kalean izaten da, han ematen du apaizak meza. Ermitan denok ez gara sartzen. Hori gaurko egunean sartuko ginatkeela. Eguraldi txarra egiten badu ez gara mendira igotzen.

### 8 Santuaren irudia?

Bederatziurrenerako jaitsi zuten hilaren 2an eta larunbatean igoko dugu gora, eta han gelditzen da urte guztian. Gazteak oinez igotzen dira, eta jatsi berdin. Eta autoan joateko bidea baduzu, harutzaino autoan. Lehengo egunean garbitzera ere

horrela joan ginen, ermitaren atariraino autoan.

### 9 Festa aldatu da?

Garai batean goizter joan, meza ematen zuen apaizak, eta gosaria. Gosaldu eta behera jaisten ginen, bazkaltzeko. Baina, ondoren, pentsatu zuten andreendako lan handia zela. Igotzen ginen, eta, ondoren, atzera, bazkaria prestatu behar. Orain bazkaria eramaten dugu. Orain egun guztirako joaten gara, eta mendian bazkaltzen dugu. Itzala daukagu, ongi dago han egoteko. Eta gurekin aurten apaizak bazkalduko du, ermitak garbitzen duen familiarekin bazkaltzen baitu.

### 10 Bazkaltzeko, zer?

Tripotzak axuriaren hankekin, eta... Bakoitzak nahi duena eramaten du. Zizak dauzkanak, tortillaren bat ziza. Bezperan prestatutako txilindronea... Horrelaxe.

### 11 Festak, zer moduz?

Andreendako lana. Mezara joaten gara. Gero musika jartzen dute plazan, besterik ez. Astelehenean nahi duena plazan afaltzera joaten da. Horrekin bukatzen dira festak. Gu ez ginen hasi eta ez gara afaltzera joaten. Eta orain ez gaude dantzatzeko, gizona maki. Gazte ginela, bai, egiten genuen festa. Gazte ginela gosariarekin igotzen ginen, orduan, gora orkestra joaten zen. Gosaldu ondoren han dantzatzen ginen, eta behera. Orain lasaigo. Bezperan lan puska bat egiten duzu, han mezara joan, eta eguraldi ona badago, behintzat, gustura egoten zara mendian, bakoitza bere familiarekin.

Eraldatu  
zure irudia

gk

DISEINUA ETA KOMUNIKAZIOA

